MEMORIA

Segurtasun Sailburuordetza
Viceconsejería de Seguridad

2021eko

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

STOP
5 TZARRA
17 URDUÑA/ORDUÑA
42 Bilbao
264 Zaragoza

› AURKIBIDEA | ÍNDICE

1. ERTZAINTZA 04

2. LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIA
ATENCIÓN DE EMERGENCIAS Y METEOROLOGÍA 48

3. TRAFIKOA | TRÁFICO 96

4. JOKO ETA IKUSKIZUNAK | JUEGO Y ESPECTÁCULOS 138

5. SEGURTASUNA KOORDINATZEKOA | COORDINACIÓN DE SEGURIDAD 170

ERTZAINTZA
PETZL
FALCON

01.1

ERTZAINTZA

› Aurkibidea

1. SARRERA
2. ESTRATEGIA
3. ZERBITZUAK
4. PERTSONAK
5. BERRIKUNTZA
6. GIZARTEA
7. EMAITZAK

› Índice

1. INTRODUCCIÓN
2. ESTRATEGIA
3. SERVICIOS
4. PERSONAS
5. INNOVACIÓN
6. SOCIEDAD
7. RESULTADOS

1. SARRERA

Ertzaintzak 2021ean izan duen jardueran, hiru alderdi azpimarratu beharko lirateke. Lehenengo eta behin, aipatu behar da zer egoera bizi izan den Covid-19ko pandemia globalaren ondorioz eta zer eragin izan duen pandemia horrek Ertzaintzako jardueran eta agenteek betetzen dituzten funtzio eta lanetan. Bigarrenik, aipatu behar da zer bilakaera izan duen kriminaltasunak 2021ean eta nola eragin duen pandemiak zuzen-zuzenean emaitza horietan. Hirugarrenik, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra (ESPPO) aipatu behar da. Plan hori 2021eko lehen hiruhilekoan onartu zen, eta, berarekin batera, "Euskadiko Segurtasun Integralaren Eredua" amaitu.

1.1 ZER ERAGIN IZAN DU COVID-19AREN ONDORIOZKO PANDEMIAK ERTZAINTZAREN JARDUERAN

2021ean, Ertzaintzaren jarduera anitza eta heterogeneoa izan da; neurri batean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Zuzendaritzako laguntza- eta lankidetza-lanak egin ditu (txertoak eskoltatu, protokoloak aplikatu...); baina, batez ere da egoera sanitario eta epidemiologiko horren inguruan emandako araudia aplikatu behar izan du.

Oso erregulazio desberdina eta anitza monitorizatu, interpretatu, zabaldu eta batez ere kontrolatu behar izan du, eman izan diren ebazpen judizialen arabera.

Araudiaren testuingurua bigarren alarma-egoerakoa izan da. Alarma-egoera horretan, zenbait muga ezarri zaizkie oinarrizko eskubideei, harik eta, osasun-larrialdi egoera batetik igaro, eta normaltasun sanitarioko aldi baten sartu arte, nahiz eta indarrean segitu araudi erresidual bat. Azkenik, berriro aktibatu da beste osasun-larrialdi bat.

1. INTRODUCCIÓN

Tres son los aspectos que cabría destacar en la actividad de la Ertzaintza durante el año 2021. El primero de ellos hace referencia a la situación de pandemia global por Covid-19, y a la repercusión que ha tenido en la actividad de la Ertzaintza, en las funciones y trabajos desempeñados por las y los agentes. En segundo término, la evolución de la criminalidad en 2021 y cómo la pandemia ha influido directamente en dichos resultados. El último de los indicadores a destacar es el Plan de Seguridad Pública de Euskadi (PGSPE) aprobado en el primer trimestre de 2021 con el que se culmina el "Modelo Vasco de Seguridad Integral".

1.1 IMPACTO DE LA PANDEMIA POR COVID-19 EN LA ACTIVIDAD DE LA ERTZAINTZA

La actividad de la Ertzaintza durante el 2021 ha sido diversa y heterogénea; en parte relacionada con las labores de auxilio y colaboración con la Dirección de Salud del Gobierno Vasco (escolta de vacunas, aplicación de protocolos...); pero principalmente vinculada con la aplicación de la normativa dictada con ocasión de la situación sanitaria y epidemiológica de cada momento.

Ha sido necesaria la monitorización, interpretación, difusión y fundamentalmente el control de una regulación muy dispar y variada, condicionada así mismo por las resoluciones judiciales dictadas.

El contexto normativo ha partido de la declaración del segundo estado de alarma, bajo cuyo ámbito se han establecido determinadas limitaciones de derechos fundamentales; pasando por una etapa propiamente de emergencia sanitaria; hasta adentrarse en un periodo de normalidad sanitaria, aunque con normativa residual vigente; y finalmente, se ha vuelto a la reactivación de una nueva emergencia sanitaria.

Araudi kasuistika horri erantzuteko, 2021ean zehar, Ertzaintzako Burutzak momentuan momentuko jarraibideak eman eta zabaldu ditu "Osasun alarmari buruzko irizpideak Ertzaintzan eta udaltzaingoetan" izeneko dokumentuaren bidez; era berean, hainbat informazio-ohar prestatu eta zabaldu ditu.

Para dar respuesta a esta casuística normativa, por la parte de la Jefatura de la Ertzaintza durante el 2021 se han dictado y difundido puntualmente las instrucciones correspondientes, a través del documento "Criterios de aplicación de la Ertzaintza y Policías Locales sobre la alarma sanitaria", así como la elaboración y transmisión de diversas Notas informativas.

	Osasun-alarmari buruzko irizpideak Ertzaintzan eta udaltzaingoetan Criterios de aplicación de la Ertzaintza y Policías Locales sobre la alarma sanitaria	**Informazio-oharrak** Notas informativas
2. alarma-egoera (2020/10/25- 2021/05/09) 2º Estado de Alarma (25/10/2020- 09/05/2021)	4	4
EAEko larrialdi sanitarioa (2021/05/09 - 2021/10/06) Emergencia sanitaria en Euskadi (09/05/2021 - 06/10/2021)	2	4
Normaltasun sanitarioa (2021/10/06 - 2021/12/02) Normalidad sanitaria (06/10/2021 - 02/12/2021)	1	-
Beste larrialdi sanitario bat EAEn (2021/10/02) Nueva Emergencia sanitaria en Euskadi (02/10/2021)	11	1

1.2 KRIMINALTASUNAREN BILAKAERA 2021EAN

Azken urteotako goranzko joera etenda geratu zen 2020ko konfinamenduarekin: urteko lehen lauhilekoan, % 63ra murriztu zuen delitu-kopurua. 2020ko apiriletik aurrera, kopuruak handituz joan ziren, baina, urte-amaieran, % 18 jaitsi zen delitu-kopurua; beti ere, 2019. urtearekiko.

2021. urteko lehen erdialdean, apurka-apurka, normaltasunera itzuli ginen, eta maiatzaren 9an formalizatu zen hori; izan ere, eten egin ziren etxeratze-agindua eta toki batetik beste mugitzeko artean zeuden mugak, eta soilik mantendu ziren gaueko aisialdiko ordutegi-mugak, 2021eko irailaren 18a arte mantendu ere.

1.2 EVOLUCIÓN DE LA CRIMINALIDAD 2021

El confinamiento de 2020, paralizó la tendencia alcista de los últimos años reduciendo el número de delitos en torno al 63% en el primer cuatrimestre del año, para comenzar una escalada sostenida a partir de abril de 2020 acabando el año con una disminución de los delitos del 18%, con respecto a 2019.

La primera mitad del año 2021 destacó por una paulatina vuelta a la normalidad, formalizada el 9 de mayo, con la suspensión del toque de queda y la limitación de movilidad geográfica existente hasta la fecha, manteniendo únicamente la limitación horaria del ocio nocturno hasta el 18 septiembre de 2021.

Murrizketa horiek apurka-apurka lasaitu zirenean, arau-hausteak areagotu ziren, baina espero baino gutxiago. Dena den, azken kopuruak oso urrun daude pandemia aurretik, 2019an, azaldu ziren kopuruetatik. Bestetik, inportantea da adieraztea urte horretako kopuruak izan zirela EAEn azken bost urteetan jasotako kopururik altuenak.

Egoera sanitarioaren arabera gizarteari elkarren ostean jarritako neurri murriztaileen ondorioz, eutsi egin zaie kriminaltasun-balioei; dena den, apurka-apurka, etengabe areagotu dira harik eta, urte-amaieran, % 10 igo; betiere, 2019ko kopuruen azpitik.

Horrela, bada, ondorengo grafikoan ikus daiteke berdin-antzekoak direla 2021eko lehen hilabeteetako ibilbidea eta 2020ko bigarren erdialdekoa. Hala ere, maiatzetik aurrera, alarma-egoera amaitu eta murrizketa gehienak erlaxatu zirenean, ikus daiteke etengabe areagotu zela kriminaltasuna, eta urrian goia jo zuela, irailean gaueko aisialdia berriro baimendu

Esa laxitud gradual en las restricciones provocó, en menor medida de lo esperado, que las infracciones aumentaran, si bien las cifras finales se mantienen alejadas de las reflejadas anteriormente a la pandemia en 2019. Por otro lado, es importante señalar que las cifras de ese año fueron las mayores registradas en el último lustro en la CAE.

Las sucesivas medidas restrictivas impuestas, en función de la situación sanitaria en la sociedad han contenido los valores de la criminalidad, aunque se ha observado un crecimiento sostenido pero constante hasta acabar el año con una subida del 10% y siempre por debajo de los alcanzados en 2019.

Así, en el gráfico, puede observarse cómo los primeros meses de 2021 presentan una trayectoria similar a la segunda parte del 2020. Sin embargo, a partir de mayo, coincidiendo con el fin del Estado de Alarma y con él la relajación de la mayoría de las restricciones, se advierte un incremento sostenido en la criminalidad que

DELITUEN BILAKAERA (2019-2021) EAE

EVOLUCIÓN DELITOS 2019-2021 CAV



ostean. Horrela, bada, 2021eko azken hilabeteetako datuak 2019an erregistratutako kopuruetara hurbiltzen hasi ziren.

1.3 PPPO 2020-2025

2021eko martxoaren 16an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra onartu zuen 2020-2025 aldirako. Hori dokumentu estrategiko bat da. 4 erronka eta 12 ildo estrategiko, 52 ekimen eta 166 ekintza zehatz jasotzen ditu, "Euskadiko Segurtasun Integralaren Eredua" delakora igarotzeko. Ereduaren xedea da ahalik eta efikaziarik handiena lortzea segurtasun publikoko mehatxu eta arriskuei erantzuterakoan. Hori lortzeko, lehenengo eta behin, mehatxu eta arriskuok identifikatu eta antzematen ditu; gero, erantzunik onena planifikatzen du, segurtasunarekin erlazionatutako zerbitzu publiko guztiekin lerrokatuta eta koordinatuta (Ertzaintza, udaltzaingoak, suhiltzaileak, eta abar); baita entitate pribatuekin edo herritarrez osatutako entitate laguntzaileekin ere (Babes zibileko boluntarioen elkarteak, Gurutze Gorria, DYA, Euskal Mendizale Federazioa, salbamendu-txakurrak, espeleologia-taldeak, osasungintza-sistema, Osakidetza, segurtasun pribatua, eta abar). Azken helburua da sistema erabat aldatzea, aldatu behar baita, eraldaketa digitalaren laguntzaz eta kontuan hartuz prebentzioa eta asistentzia eta erantzunkidetasun instituzionala.

Lan-plan berri horrekin, EAEk jauzi kualitatiboa egingo du segurtasun publikoko sistema modernizatzeko; horretarako, plangintza jasangarriko eredu bat bilatuko du, bat datorrena Europar Batasuneko "Segurtasunaren Batasunerako 2025 Estrategiarekin", Nazio Batuen Erakundeko "Garapen Jasangarriko Helburuekin" eta "Euskadi 2030 Agendarekin". Era berean, ahaleginak egingo ditu tratu- eta aukera-berdintasuna integratzen dituzten politikak garatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera.

tuvo su momento álgido en el mes de octubre tras el restablecimiento del ocio nocturno en septiembre. Así, los datos de los últimos meses de 2021 empezaron a acercarse a las cifras registradas durante el 2019.

1.3 PGSPE 2020-2025

El 16 de marzo de 2021, el Gobierno Vasco aprueba el Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2020 – 2025. Se trata de un documento estratégico que recoge 4 retos, 12 líneas estratégicas, 52 iniciativas y 166 acciones concretas para culminar la transición hacia el "Modelo Vasco de Seguridad Integral". El modelo pivota sobre el objetivo de máxima eficacia en la respuesta a las amenazas y riesgos a la seguridad pública. Para conseguirlo, primero los identifica y detecta, y, después, planifica la mejor respuesta alineada y coordinada entre todos los servicios públicos relacionados con la seguridad (Ertzaintza, policías locales, cuerpos de bomberos, etc.) y las entidades privadas o ciudadanas colaboradoras (asociaciones de voluntariado de Protección Civil, Cruz Roja, DYA, Federación Vasca de Montaña, perros de salvamento, grupos de espeleología, sistema sanitario, Osakidetza, seguridad privada, etc.). El objetivo final es acometer un cambio profundo y necesario del sistema, facilitado por la transformación digital y basado en la prevención, la asistencia y la corresponsabilidad institucional.

Con este nuevo plan de trabajo, Euskadi da un salto cualitativo en la modernización del sistema de seguridad pública, buscando un modelo de planificación sostenible en sintonía con la "Estrategia 2025 para una Unión de la Seguridad" de la UE, los "Objetivos de Desarrollo Sostenible" de la ONU, así como la "Agenda Euskadi 2030". Igualmente, contribuirá al desarrollo de políticas que integren la igualdad de trato y oportunidades de mujeres y hombres, de acuerdo con lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2. ESTRATEGIA

Ertzaintzak polizia-zerbitzuak sendo inbrikatu nahi ditu gizarte ireki, plural eta elebidun batean, zeina osatzen baitute gizonezko eta emakumezko eskubideetan berdinek. Horretarako, bere egiten du Europako Kontseiluak Poliziaren Etika Kode Europarrari buruz emandako Gomendioa, EAEko Poliziaren ordenamenduaren zati modura. Ertzaintzaren Estrategia eratzen duten elementuak bat datoz xede horrekin, Ertzaintzari laguntzeko erabat gara dezan bere Eredua.

2.1 MISIOA

Ertzaintza Euskadiko polizia integrala da. Zerbitzatzen duen gizarteaz kezkatuta, bakea eta bizikidetza bultzatzen ditu, bai eta pertsonen segurtasuna eta ongizatea ere.

2.2 BISIOA

Ertzaintzak onarpen-maila altua lortu nahi du, gardentasuna, etika publikoa eta giza eskubideekiko errespetua sustatzen dituelako.

Bere ereduan oinarrituta, lanean jarraituko du eguneroko jarduera hobetzeko, eta lidergoa sendotuko du, bera osatzen duten pertsonei laguntzeko hazkuntza indibiduala izaten, autonomia-maila altua lortzen eta egunero-egunero parte hartzen.

Gizartearekin estu-estu lan egiten jarraituko du bere zerbitzuak egokitzen eta efiziente egiten segurtasuneta laguntza-arloan, eta hurbiltasuna bultzatzen zerbitzu horiek emateko orduan.

2. ESTRATEGIA

La Ertzaintza persigue afianzar la imbricación de los servicios policiales con una sociedad abierta, plural, bilingüe y constituida por hombres y mujeres iguales en derechos. Para ello asume como parte del ordenamiento aplicable a la Policía del País Vasco la Recomendación del Consejo de Europa relativa al Código Europeo de Ética de la Policía. Los elementos que constituyen la Estrategia de la Ertzaintza están alineados con esa finalidad para ayudar a la Ertzaintza a desarrollar plenamente su Modelo.

2.1 MISIÓN

La Ertzaintza es la Policía integral de Euskadi. Comprometida con la sociedad a la que sirve, promueve la paz y la convivencia, la seguridad y el bienestar de las personas.

2.2 VISIÓN

La Ertzaintza persigue un alto nivel de reconocimiento por su fomento de la transparencia, de la ética pública y del respeto a los derechos humanos.

Sobre la base de su modelo, seguirá trabajando en la mejora de la actividad diaria y consolidará un liderazgo que facilite el crecimiento individual, promueva un alto nivel de autonomía y fomente la participación diaria de las personas que la integran.

Continuará trabajando estrechamente con la sociedad en la adecuación y eficiencia de sus servicios, tanto de seguridad como asistenciales, impulsando la cercanía con que se prestan.

2.3 BALIOAK

- **HURBILTASUNA:** Pertsona guztiekiko jarrera ireki eta hurbilari eusten diogu.
- **KONFIANTZA:** Zuzen eta garden jokatzen dugu, eta zintzo komunikatzen gara.
- **KONPROMISOA:** Buru-belarri dihardugu erantzun efikazak ematen, arazoak konpontzen laguntzearren.
- **TALDEA:** Modu kohesionatuan egiten dugu lan, lidergo aktibo batek gidatuta.
- **BILAKAERA:** Geure burua etengabe ebaluatzen dugu, hobetzeko.

2.3 VALORES

- **CERCANÍA:** Mantenemos una actitud abierta y cercana a todas las personas.
- **CONFIANZA:** Actuamos con honestidad y transparencia y nos comunicamos de forma sincera.
- **COMPROMISO:** Nos implicamos para dar respuestas eficaces que ayuden a resolver los problemas.
- **EQUIPO:** Trabajamos de forma cohesionada guiados por un liderazgo activo.
- **EVOLUCIÓN:** Nos evaluamos de forma continua para mejorar.

Javi Conde Atletismo Klub Egokituaren bisita Ertzaintzaren Iurretako instalazioetara.
Visita del Club de Atletismo Adaptado Javi Conde a las instalaciones de la Ertzaintza en Iurreta.

2.4 SEGURTASUN SAILBURUORDETZAKO ETA ERTZAINTZAREN ZUZENDARITZAKO IZENDAPENAK

2021eko abenduan, Lehendakariorde lehen eta Segurtasuneko sailburu Josu Erkorekak Segurtasun Sailburuordetzako eta Ertzaintzaren Zuzendaritzako kargudunak izendatu ditu. Rodrigo Gartzia Azurmendi, Ertzaintzaren zuzendari izandakoa, Segurtasun-sailburuorde izendatu du. Rodrigo Gartziak Josu Zubiaga Nieva ordezkatu du, eta Josu Zubiaga, berriz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izendatu dute.

Ertzaintzaren Zuzendaritzaren ardura, bestalde, Victoria Landa Moñuxek bereganatu du. Historian lehen aldiz, emakume bat izendatu da Ertzaintzaren zuzendari. Hirugarren promozioarekin batera sartu zen, 1983an, eta hainbat lanpostutan eta ertzain-etxetan garatu du karrera profesionala; 2017tik aurrera, Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeko arduradunik handiena izan da; kargu horretara, bestalde, komisarian zeukan kargutik iritsi zen. Victoria Landa intendente-lanetan ari den emakume bakarra da, Ertzaintzako kategoria profesional eta eskalarik altuenean.

2.4 NOMBRAMIENTOS EN LA VICECONSEJERÍA DE SEGURIDAD Y EN LA DIRECCIÓN DE LA ERTZAINTZA

En el mes de diciembre de 2021, el Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, Josu Erkoreka, lleva a cabo nuevas designaciones en la Viceconsejería de Seguridad y en la Dirección de la Ertzaintza. El hasta entonces Director de la Ertzaintza, Rodrigo Gartzia Azurmendi, es nombrado Viceconsejero de Seguridad, sustituyendo en el cargo a Josu Zubiaga Nieva, quien toma posesión de la vocalía del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

La responsabilidad de la dirección de la Ertzaintza la asume Victoria Landa Moñux. Por primera vez en la historia, una mujer es nombrada directora de la Ertzaintza. Ingresó en 1983 en la tercera promoción y ha desarrollado su carrera profesional en diferentes puestos y comisarías; ha sido desde el año 2017 la máxima responsable de la Ertzain-Etxea de Vitoria-Gasteiz, cargo al que accedió desde su plaza de comisaria. Victoria Landa es la única mujer que ejerce de Intendente, la máxima de las categorías profesionales y escalas de la Ertzaintza.

3. ZERBITZUAK

Ertzaintzak agerian uzten du zer konpromiso duen gizartearekin, eta estu-estu lan egiten du gizartearekin, bere zerbitzuak –hala segurtasun-arlokoak nola laguntzakoak– efizientzia handiaz egokituta errealitate sozialera. Horretarako, arreta berezia jartzen du baliabide materialak eboluzio teknologikora egoki daitezen.

3.1 PERTSONAK ATXILOTZEKO LANEN KUDEAKETA ZENTRALIZATUA

Atxilotegi Arrunta Atxilotutako pertsonen kudeaketa zentralizatuko proiektua da, eta Araban garatu da, 2021ean. Zentroa Gasteizko Ertzain-etxean dago, eta bertan hartzen dira Ertzaintzako unitate eta zerbitzu guztiek lurralde horretan atxilotutako pertsonak; hau da, Gasteizen, Laguardian eta Laudion atxilotuak (Bilboko barruti judizialekoak izan ezik, Bilboko Atxiloketa-zentrora eramaten dira eta), Arabako Trafikoko Lurralde Unitatean eta Arabako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzuetan atxilotuak edota miñoiek eta udaltzainek atxiloketa-gaien arabera atxilotuak (denak, Gasteizko Udaltzaingoak atxilotutakoak izan ezik).

Zeldetan, hobekuntza-lanak egin dira; horretarako, kontuan hartu dira Arartekoaren, Herriaren Defendatzailearen eta Europako Kontseiluaren gomendioak. Adibidez, barruan, kamerak eta interkomunikazio-sistemak eta bandalismoaren aurkako komunak jarri dira; zaintza-postuetatik, kalabozoak monitorizatzen dira, edota alarma-sakagailuak jarri dira pasabideetan.

Prozedura bat abiatu da proiektua entitate ukitu guztiei zabaltzeko; besteak beste, Ertzaintzaren barruan horretan parte hartzen duten unitateei, udaltzaingo ukituei, epaitegiei, fiskaltzari, abokatu-elkargoei. Talde bat ere sortu da ezarpen-prozesuaren jarraipena egiteko; era berean, jarraibide- eta prozedura-errepositorio bat ere sortu da, zeinetan definitzen baitira erantzukizunak, unitate arteko komunikazio-prozesua eta desadostasunei buruzko ebazpenak.

3. SERVICIOS

La Ertzaintza pone de manifiesto su compromiso con la sociedad a la que sirve y trabaja estrechamente con ella, adecuando sus servicios, tanto de seguridad como asistenciales, a la realidad social, con un alto nivel de eficiencia, para lo cual prestará especial atención a la adecuación de sus recursos materiales a la evolución tecnológica.

3.1 GESTIÓN CENTRALIZADA DE DETENCIÓN DE PERSONAS

El proyecto de Gestión Centralizada de las personas detenidas, Atxilotegi Arrunta, se desarrolla en el año 2021 en Araba. El Centro se ubica en la comisaría de Gasteiz y acoge a todas las personas detenidas por las Unidades y Servicios de la Ertzaintza de todo el Territorio, es decir, Gasteiz, Laguardia, Laudio (salvo los correspondientes al Partido Judicial de Bilbao que son derivados al Centro de detención de Bilbao), UTTA, SICTA, Miñones y aquellas Policías Locales con acuerdo en materia de detención (todas excepto la Policía Local de Gasteiz).

En conformidad con las recomendaciones del Arartekо, del Defensor del Pueblo y del Consejo de Europa, se han realizado mejoras en la zona de celdas tales como la instalación de cámaras e intercomunicadores en el interior de las mismas, aseos antivandálicos, monitorización desde el puesto de custodia en calabozos o pulsadores de alarma en pasillos.

El Proyecto ha comportado un proceso de difusión a todas las entidades afectadas: Unidades de la Ertzaintza participantes, Policías Locales afectadas, Juzgados, Fiscalía, Colegio de Abogados, entre otros. También ha supuesto la creación, tanto de un equipo para el seguimiento de la implantación, como de un repositorio de instrucciones y procedimientos en los que se definen las responsabilidades, el proceso de comunicación entre Unidades y la resolución de discrepancias.

3.2 BASAURI ETA GALDAKAOKO ERTZAIN-ETXEETAKO KUDEAKETA

Gipuzkoako Lurralde Historikoan beste proiektu batzuekin ireki zen bideari jarraikiz, Segurtasun Sailak erabaki du Basauri eta Galdakaoko ertzain-etxeetako kudeaketa-lanak partekatzea. Ondorioz, Ibaizabal Ertzain-etxea sortu da, kontuan hartuta zer izen duen udalerri bietatik igarotzen den ibaiak.

Aurretiazko azterlanak egin eta gero, Segurtasun Sailak proiektua aurkeztu zuen Ertzaintzak 2021eko urtarrilaren 13an egindako Kontseiluan, eta prozesu bat hasi zuen proiektua aurkezteko eta azaltzeko udal-agintariei, udaltzaingoei eta ertzain-etxe bietan lan egiten duten langileei; nolanahi ere, Ibaizabal Ertzain-etxe berria ezartzeko orduan, konpromiso eztabaidaezina egon da langile horien eskubideak errespetatzeko.

Kudeaketa partekatuaren bidez, zentralizatu egin dira erabaki operatiboak hartzeko prozesuak: Unitate Burutza bakarra eta Operazio Burutza bakarra, dagokien aginte- eta kontrol-talde eta guzti. Horrela, ertzain-etxeak baliabide gehiago izango ditu, eta, kudeaketa zentralizatu horri esker, aurreikusitako edo bat-bateko jarduketa gehiagori erantzun ahal izango die, efektibo gehiagorekin eta azkarrago. Hala, bermatu

3.2 GESTIÓN COMPARTIDA DE LAS ERTZAIN-ETXEAK DE BASAURI Y GALDAKAO

Como continuación a la senda abierta en proyectos anteriores en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, el Departamento de Seguridad establece en Bizkaia la Gestión Compartida de las Ertzain-etxeak de Basauri y Galdakao, dando lugar a la nueva Ertzain-etxea Ibaizabal, denominación que proviene del nombre del río que discurre por ambos municipios.

Tras los estudios previos, el proyecto se presenta por el Departamento de Seguridad en el Consejo de la Ertzaintza celebrado el 13 de enero de 2021, dando inicio a un proceso de comunicación y explicación del mismo a la autoridades municipales, Policías Locales y al personal que trabaja en ambas Comisarías, siendo el respeto a los derechos de estas y estos trabajadores un compromiso incuestionable en la implantación de la nueva Comisaría de Ibaizabal.

A través de la gestión compartida se centralizan los procesos de toma de decisiones operativas, única Jefatura de Unidad y única Jefatura de Operaciones, con su correspondiente equipo de mando y control, haciendo posible disponer de una Comisaría con más recursos, que puede atender las actuaciones, previstas o en incidental, con mayor número de efectivos y con



Basauriko Ertzain-etxea / Ertzain-etxea de Basauri

Galdakaoko Ertzain-etxea / Ertzain-etxea de Galdakao

ahal izango du herritarrei efikazia gehiagoz erantzungo zaiela, eta baliabideek elkarri lagundu ahal izango diotela. Ondorioz, diharduten agenteek seguruago jardungo dute.

Ibaizabalgo Ertzain-etxe berriak Galdakao eta Basauriko egoitza edo lantoki biak mantenduko ditu. Azken horrek, buru modura, lanpostu-zerrendako dotazio-berak mantenduko ditu, edo baten bat gehiago edukiko du; horri esker, polizia gehiago izango dira haren zerbitzupeko 7 udalerrietan (Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Zaratamo eta Zeberio).

Bizkaian langile gehien dituzten ertzain-etxeetatik, hirugarrena da Ibaizabal, eta oreka bat lortu du unitate modura, zeren, orain, zerbitzua ematen die batez ere hiriguneei (orain arte, Basauriko Ertzain-etxeak soilik erantzuten zien) eta beste gune batzuei, landa-eremukoak eurak eta orain arte Galdakaoko Ertzain-etxearen ardurapekoak.

Beste urrats batzuk ere eman behar dira Ibaizabalek lor dezan aurreikusitako konfigurazio hori. Horretarako, hainbat ekintza burutzen ari dira apurka-apurka; esaterako, aldaketak egin behar dira, eta egin dira, informatika- eta kudeaketa-alderdietan (eginda daude), langile-egitura lanpostu-zerrenda berrira egokitu behar da, eta toki fisikoak ere birmoldatu behar dira.

un tiempo de respuesta más reducido, fruto de esa gestión centralizada, garantizando una respuesta más eficaz a la ciudadanía y haciendo posible un apoyo entre recursos que redunda en mayor seguridad para las y los agentes actuantes.

La nueva Ertzain-etxea de Ibaizabal conserva las dos sedes o centros de trabajo, Galdakao y Basauri, esta última como cabecera, mantiene e incluso incrementa ligeramente, el número de dotaciones en la relación de puestos de trabajo y permite disponer de mayor presencia policial en los 7 municipios a los que da servicio (Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Zaratamo y Zeberio).

Ibaizabal, se constituye como la tercera Ertzain-etxea de Bizkaia en número de personal, consiguiendo un equilibrio como Unidad que ahora da servicio a zonas predominantemente urbanas (atendidas hasta ahora por la Comisaría de Basauri) y otras que presentaban un carácter más rural (las que correspondían a la Comisaria de Galdakao).

Los siguientes pasos para que Ibaizabal adquiera la configuración prevista requieren de acciones que se van acometiendo paulatinamente, tales como modificaciones en aspectos informáticos y de gestión, ya realizadas, adecuación de la estructura de personal según la nueva relación de puestos de trabajo, así como remodelaciones en los espacios físicos.

3.3 ETXEKO INDARKERIATIK ETA GENERO-INDARKERIATIK BABESTEA (EBA)

Delitu estrategikotzat jotzen direnen artean, Ertzaintzak ahalegin handiak eta etengabeak egin behar ditu EI/GI kontrako borrokan. 2021ean, ez da biktima mortalik erregistratu Ertzaintzak babestutako emakumeen artean. Hala ere, indarkeria estrukturala da, eta segitzen du gizartea astintzen, eta, zoritxarrez, 2021ean, bi emakume erahil dituzte.

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren kontra Ertzaintzak egiten duen etengabeko borrokaren testuinguruan, 2021ean, lanean segitu du zazpi udalerritako udaltzaingoekin batera, EBA (Etxekoen eta Emakumeen Babesa) lortzeko eta etxeko indarkeria eta/edo genero-indarkeria kasuen kudeaketa partekatuko euskal sistema garatzeko. Sistema horren helburua da etengabe edukitzea informazio eguneratua, erabaki egokiak hartzeko eta indarkeria-mota horietako biktimen arriskuak murrizteko.

3.3 PROTECCIÓN CONTRA LA VIOLENCIA DOMÉSTICA Y LA VIOLENCIA DE GÉNERO (EBA)

Entre los delitos considerados estratégicos, la lucha contra la VD/VG es objeto de un intenso y constante esfuerzo por parte de la Ertzaintza. En el año 2021 no se ha registrado ninguna víctima mortal entre las mujeres protegidas por la Ertzaintza. Sin embargo, es una violencia estructural que sigue golpeando a la sociedad y, lamentablemente, el año 2021 se salda con el asesinato de dos mujeres.

En el contexto de la mejora continua por parte de la Ertzaintza en la lucha contra la violencia doméstica y la violencia de género, a lo largo del 2021 se ha continuado trabajando, en colaboración con la Udaltzaingoa de siete municipios, en el desarrollo de EBA (Etxekoen eta Emakumeen Babesa), el sistema vasco de gestión compartida de los casos de violencia doméstica y/o de género, que tiene la finalidad de disponer permanentemente de la información actualizada que permita tomar las decisiones adecuadas y minimizar los riesgos para las víctimas de estos tipos de violencia.

Urtean zehar, aurrerapausoak eman dira prozedura bat prestatzeko lanetan, irizpide amankomunak ezarri, eta jakiteko nola jokatu indarkeria-mota horiei aurre egiteko jarduketetan, eta definitzeko zer pauta segitu EBA espedientetako kudeaketa-lanak koordinatzeko orduan.

Urrian eta azaroan, PLEAren bidez, 60 udaltzain prestatu ziren, EBA osatzen duten zazpi udalerrietakoak eurak. Prestakuntza hori garatzen eta ezartzen, parte hartu dute: Bilbok, Donostiak, Vitoria-Gasteizek, Basaurik, Barakaldok, Errenteriak eta Getxok. Prestakuntza horri esker, EBA espedienteak prestatzen dituzten poliziek babes-neurri egokiak ezarri ahal izango dituzte kalkulatutako arriskuetarako, espedientea irekitzen denetik eta harik eta babes-neurri egokiak abian jarri arte.

Plataforma informatikoa 2021eko azaroaren 10ean sartu zen produkzioan. Dena den, aurretik bi laguntza-saio antolatu ziren EBA aplikazioaren eta prozeduraren inguruko zalantzak argitzeko eta kontsultei erantzuteko.

Asmoa da EBA sistema irisgarria izatea udaltzain guztientzat, eta sistema hori irekitzea biolentzia-mota horien kontra lanean ari diren bestelako agente guztiei ere: epaileei, fiskaltzari, gizarte-zerbitzuei, Osakidetzari, Emakunderi, Auzitegi Medikuntzako Erakundeari, eta abarrei.

Bestetik, Ertzaintza lanean ari da genero-indarkeriako ohiko formak ez ezik beste batzuk ere integratzeko; baita lege berrietan esku-hartzei buruz azaltzen diren betekizunak eta Istanbulgo Hitzarmeneko planteamenduak integratzeko ere.

Testuinguru horretan, proiektu bat dago EAEko poliziak koordinatzeko genero-indarkeria gaietan lan egiteko. Proiektu hori, berriz, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak gidatzen du, eta Ertzaintzako EI/GI prozesuko taldea lankidetzan aritu da polizia koordinatzeko protokolo-proposamen bat lantzeko. Protokolo-proposamen hori Bilboko Bizkaia aretoan aurkeztu zen, 2021eko irailaren 27an.

A lo largo del año se ha avanzado en la elaboración del procedimiento que establece los criterios comunes para el tratamiento de actuaciones derivadas de estos tipos de violencia y define las pautas para coordinar la gestión de los expedientes EBA.

En los meses octubre y noviembre, por medio la AVPE, se impartió formación a 60 agentes de Policía Local de los siete municipios integrados en EBA y que han participado en su desarrollo e implantación: Bilbao, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Basauri, Barakaldo, Errenteria y Getxo. Esta formación permitirá a las Policías integradas gestionar los expedientes EBA desde su apertura hasta la puesta en marcha de las medidas de protección adecuadas a los diversos niveles de riesgo estimado.

La plataforma informática entró en producción el 10 de noviembre de 2021, habiéndose celebrado dos sesiones de soporte para aclarar dudas y atender consultas sobre el manejo de la aplicación y el procedimiento común EBA.

La aspiración es hacer accesible el sistema EBA al conjunto de las Policías Locales y abrirlo al resto de agentes involucrados en la lucha contra estos tipos de violencia: Judicatura, Fiscalía, Servicios Sociales, Osakidetza, Emakunde, Instituto de Medicina Legal, etc.

Por otro lado, la Ertzaintza trabaja en la integración de otras formas de violencia machista distintas a las habitualmente contempladas, así como en los requisitos de intervención planteados en las nuevas leyes y enfoques que dimanan del Convenio de Estambul.

En este contexto, en el marco del proyecto de revisión de los protocolos de coordinación entre las policías del País Vasco en materia de violencia machista, liderado por la Dirección de Coordinación de Seguridad, el Equipo de Proceso VD/VG de la Ertzaintza ha colaborado en la elaboración de una propuesta de protocolo de coordinación policial, que fue presentada el día 27 de septiembre de 2021, en la sala Bizkaia Aretoa de Bilbao.

Irailaren 28an, marihuana-landaketa bat desegin zen Legorretan (Gipuzkoan).
Desmantelamiento el 28 de septiembre de una plantación de marihuana en Legorreta (Gipuzkoa).

3.4 DROGREAREN AURKAKO PLANA

EAEn, cannabis-kontsumo indizeak altuak dira, eta, apurka-apurka, gizarteak antzematen du inikuoa dela eta zigorrik gabe geratzen dela. Ondorioz, gero eta kontsumitzaile-talde eta -elkarte gehiagok aldarrikatzen du erantzukizunez kontsumitzeko eskubidea, nahiz eta indarreko legeriaren kontra egon.

Osasun publikoaz duen ikuspegiagatik, Osasuna Segurtasunez Eraikiz plana nabarmendu behar da. Ertzaintzak droga-gaietarako duen plan estrategikoa da, zeharka bideratua legez kanpoko drogekiko tolerantzia sozial hori murriztera, drogak lortzeko bideak mugatzera eta bultzatzera efikaziaz betetzera indarrean den araudia.

Horrela, bada, 2021eko irailaren bigarren hamabostaldian eta urrian, plan zehatzak bultzatu dira, kontrolatzeko non kontsumi daitezkeen marihuana eta beste substantzia estupefaziente batzuk, kontsumo-jokaerak aurreikusteko eta, behar izanez gero, zigortzeko; batez ere, gazteen eta adingabeen kasuan. Cannabis-kontsumitzaileen elkarteetako edo klubetako lokalak ikuskatzeko/ikertzeko lanak ere egin dira, zehazteko ea haien jarduerak betetzen dituzten ala ez lege-betekizunak, eta jakiteko ea marihuana-landaketarik dagoen kanpoan

3.4 PLAN CONTRA LA DROGA

Los altos índices de consumo de cannabis en Euskadi, así como la progresiva percepción social de inocuidad y de impunidad de su consumo, han sintonizado con una dinámica emergente de colectivos y asociaciones de consumidores que, como opción, reivindican el reconocimiento de un derecho a consumir de manera responsable en colisión con la legislación vigente.

El Plan estratégico de la Ertzaintza en materia de drogas, Osasuna Segurtasunez Eraikiz, destaca por su enfoque de salud pública, orientado de manera transversal a la reducción de dicha tolerancia social con las drogas ilegales, la limitación a su acceso y el impulso del cumplimiento eficaz de la normativa vigente.

Así, durante la segunda quincena del mes de septiembre y el mes de octubre de 2021 se han impulsado planes concretos, orientados a controlar espacios potenciales de consumo de marihuana y otras sustancias estupefacientes, con el fin de prevenir, y en su caso, sancionar, las conductas de consumo, fundamentalmente de personas jóvenes y menores de edad. También se han realizado labores de inspección/investigación sobre locales de asociaciones o clubes de consumidores de cannabis, al objeto de determinar si sus actividades se ajustan a los requisitos legales, y sobre posibles plantaciones de marihuana en el exterior.

UDAZKENEAN ABIAN JARRITAKO PLANAK / PLANES ACTIVADOS EN OTOÑO

CANNABISA KONTSUMITZEKO TOKIAK KONTROLATZEA / CONTROL DE LUGARES DE CONSUMO		
PREBENTZIO-JARDUERAK / ACTUACIONES PREVENTIVAS		2040
IDENTIFIKATUTAKO PERTSONAK / PERSONAS IDENTIFICADAS		199
HSBLO ESPEDIENTEAK / EXPEDIENTES LPSC		155
KONFISKATUAK / INCAUTACIONES	**Marihuana** / Marihuana	138 grs.
	Haxixa deribatuak / Hachís derivados	13 grs.
	Kokaina / Cocaína	198 grs.
	Beste substantzia batzuk / Otras sustancias	43 grs.

CANNABIS-CLUBAK KONTROLATZEA / CONTROL DE CLUBES CANNÁBICOS		
IKERTUTAKO LOKALAK / LOCALES INVESTIGADOS		85
INSTURITUTAKO ATESTATUAK / ATESTADOS INSTRUIDOS		3
ESBL ESPEDIENTEAK / EXPEDIENTES LSC		6
KONFISKATUAK / INCAUTACIONES	**Marihuana** / Marihuana	1102 grs.
	Haxixa / Hachís	3388 grs.

MARIHUANA-LANDAKETAK KONTROLATZEA / CONTROL DE PLANTACIONES DE MARIHUANA	
IKERTZEA EA LANDAKETARIK DAGOEN / INVESTIGACIÓN PRESUNTAS PLANTACIONES	33
LANTAKETAK DESEGITEA / DESMANTELAMIENTO DE PLANTACIONES	15
INKULPATUAK / PERSONAS INCULPADAS	18
ATZEMANDAKO SUBSTANTZIAK / SUSTANCIA APREHENDIDA	3087 grs.

3.5 ATXILOTZE-PROZESUA EGOKITZEA INOR EZ BAZTERTZEKO PRINTZIPIOETARA

Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea betetzeko, Ertzaintzako atxilotze-prozesuko taldeak harremanetan ibili dira EAEko transexual- eta transgenero-taldeekin, lantzeko nola egin gorputz-miaketak pertsona transexualak eta transgeneroak atxilotzen direnean.

Harreman horiek izan ostean, 2021eko martxoan, gorputz-erregistroari dagokion Atxiloketa Prozesuaren barne-araudia aldatzen da, gorputzak miatzeko prozesua egokitzeko atxilotzen diren pertsona transexual edota transgeneroei, kontuan izanik zer genero-identitate antzematen duen bere buruarentzat miatu behar den pertsona horrek, dela NANean azaltzen delako baldin eta berriro atxiki zaiolako erregistro-sexua, dela interesdunak hala adierazi duelako. Horrenbestez, eginbidean pertsonaren legezko identifikazio-datuak ez ezik, berak hautatutako identitatea ere jasoko da, genero hori autematen duelako bere buruarentzat.

3.5 ADECUACIÓN DEL PROCESO DE LA DETENCIÓN A PRINCIPIOS DE NO DISCRIMINACIÓN

Con objeto de dar cumplimiento a la Ley Vasca 14/2012 de 28 de Junio de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de las personas transexuales, el Equipo de Proceso de la Detención de la Ertzaintza mantiene contacto con colectivos de transexuales y transgénero de Euskadi para abordar la manera de llevar a cabo los registros corporales a las personas transexuales y transgénero detenidas.

Tras estos contactos, en marzo de 2021 se modifica la normativa interna del Proceso de la Detención relativa al registro corporal, a fin de adecuar el procedimiento de registro corporal de una persona transexual o transgénero detenida, atendiendo a la autopercepción de la identidad de género de la persona a registrar, sea la que figure en su DNI en el caso de haberse reasignado el sexo registral, o sea conforme a lo manifestado por la persona interesada, haciendo constar en diligencia no solo los datos identificativos legales de la persona, sino también su identidad elegida por razones de género auto-percibido.

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

132. zk., 2012ko uztailaren 6a, ostirala

Laburpenara joan

Bestelako formatuak: PDF (247 KB - 11 orri.) EPUB (206 KB)

Hemen ikusgai dauden gainerako formatuen edukia PDF dokumentu elektroniko ofizial eta jatorrizkoa eraldatuz lortu da

Azterketa dokumentala

XEDAPEN OROKORRAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3067

14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa onartu duela jakinarazten zaie euskadiko herritar guztiei.

N.º 132, viernes 6 de julio de 2012

Ir al sumario

Otros formatos: PDF (266 KB - 11 Pág.) EPUB (208 KB)

El contenido de los otros formatos que aquí se muestran, se ha obtenido mediante una transformación del documento electrónico PDF oficial y auténtico

Análisis documental

DISPOSICIONES GENERALES

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3067

LEY 14/2012, de 28 de junio, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 14/2012, de 28 de junio, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales.

28ko 14/2012 Legea

Ley Vasca 14/2012 de 28 de Junio

Genetika Forentse Atala 10 ertzaineko taldea da, eta emakume bat da atal-burua. Talde horrek bat egin du #noMoreMatildas ekimenarekin eta haren "Talentuak ez du generorik" kanpainarekin, neskato eta neka nerabeen jakin-min zientifikoa pizteko.

Las ertzainas de la Sección de Genética Forense, grupo integrado por 10 personas y liderado por una Jefa de Sección, se une a la iniciativa #noMoreMatildas y su campaña "El talento no tiene género" con el objetivo de despertar la inquietud científica en niñas y adolescentes.

4. PERTSONAK

Balioen adierazpena oinarritzat hartuta, Ertzaintzak bere lidergo-eredua finkatu, indartu eta hedatuko du. Eredu horrek, zehazki, oinarritzat hartzen du pertsonen hazkundea sustatzea, haien autonomia bultzatuta eta erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuta. Arreta berezia jartzen da pertsonek parte har dezaten Ereduaren garapen integralean. Kualifikazio profesionalaren oinarriak dira: ezagutza teknikoak eta trebetasun eta gaitasun sozialak, gatazkak ebazten laguntzen dutenak, zeren, azken finean langileen jardun profesionala hobetzen dute.

4.1 PLANTILLA

COVID-19aren ondoriozko pandemia globalak eragin dituen murrizketa prebentiboak direla-eta, 2021ean, atzeratu egin dira Ertzaintzako agenteen oinarrizko eskalako hautaketa-prozesuak, hala prestakuntzakoak nola kidegoan sartzekoak. Hala ere, lau hilabetean luzatu eta gero, urtarrilean, prestakuntzaldia hasi zen Ertzaintzak eta EAEko udaltzaingoek batera antolatu duten lehen promozioarentzat. Abenduan, bertan behera utzi zen kredentzialak entregatzeko ekitaldi ofiziala, kutsadura-kopuruak altuak zirelako eta COVID-19 oso hedatuta zegoelako. Euskal Poliziako lehen promozioak 805 agenterekin hasi zuen praktikaldia. Agente horietatik, 654 Ertzaintzako XXIX. promoziokoak ziren: 449 gizon eta 205 emakume; hau da, emakumeen ordezkaritza % 31,34koa izan zen.

4. PERSONAS

Apoyándose en su declaración de Valores, la Ertzaintza consolida, fortalece y extiende su modelo de liderazgo, que se fundamenta en promover el crecimiento de las personas, facilitando su autonomía y mejorando la toma de decisiones. Se pone especial atención en la participación de las personas en el desarrollo integral del Modelo. La cualificación profesional está sustentada en los conocimientos técnicos y en las destrezas y habilidades sociales que facilitan la resolución de conflictos para, en definitiva, mejorar el desempeño profesional.

4.1 PLANTILLA

Las restricciones preventivas derivadas de la pandemia global por Covid-19 han originado durante el año 2021 demoras en los procesos selectivos, de formación e ingreso en la Escala Básica de agentes de la Ertzaintza. A pesar de ello, en enero, con cuatro meses de dilación, se inicia la etapa formativa de la primera promoción conjunta de Ertzaintza y Policía Local de Euskadi. En diciembre y como consecuencias de las altas cifras de contagios y de expansión del Covid-19, se cancela el acto oficial de entrega de credenciales presidido por el Lehendakari. La primera promoción de la Euskal Polizia comienza su periodo de prácticas con 805 agentes, de los cuales 654 agentes integran la XXIX promoción de la Ertzaintza, 449 hombres y 205 mujeres, un 31,34 % de representación femenina.

2021ean, emakumeen ordezkaritza % 16,21ekoa izan da. Horrek progresio hori berresten du, gero eta nabarmenagoa baita azken urteotan. Euskal Poliziaren uztailaren 22ko 1/2020 Legeak bere helburuen artean jasotzen du Ertzaintzan oreka handiagoa lortu behar dela gizon-emakumeen artean. Hori apustu sendoa da, eta, 2022an, berriz, indartu egingo da, emakumeak Ertzaintzara sartzeko lehenengo promozio-plana prestatu baita. Plan hori diseinatuta dago gizon-emakumeen berdintasuna sustatzeko hautaketa-prozesuaren hasiera-hasieratik, eta asmoa da areagotzea EAEko emakume polizien kopurua.

En el año 2021, la representación femenina ha alcanzado el 16,21 %, lo que confirma esa progresión, más ostensible en los últimos años. La Ley de Policía Vasca 1/2020 de 22 de julio recoge, como uno de sus objetivos, conseguir una plantilla más equilibrada entre hombres y mujeres en la Ertzaintza. Se trata de una apuesta firme que se verá reforzada en el año 2022 con la elaboración del primer Plan de promoción del acceso de las mujeres a la Ertzaintza; diseñado para fomentar la igualdad de mujeres y hombres desde el comienzo del proceso selectivo y que persigue incrementar el número de mujeres policía en Euskadi.

ERTZAINTZAKO PLANTILLA, BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA SEXU-ORDEZKARITZAREN BILAKAERA

PLANTILLA DE LA ERTZAINTZA RELEVO GENERACIONAL Y EVOLUCIÓN DE LA REPRESENTACIÓN POR SEXOS



ERTZAINTZAKO PLANTILLA
PLANTILLA 2021



ERTZAINTZAKO PLANTILLA FUNTZIOEN ARABERA
PLANTILLA DE LA ERTZAINTZA POR FUNCIONES



Euskal Poliziako lehen promozioa: Ertzaintzako eta Udaltzaingoko XXIX. promozioko ikasleek osatzen dute.
Primera promoción de la de la Euskal Polizia, integrada por alumnado de la XXIX Promoción de la Ertzainza y Policía Local.

4.2 PRESTAKUNTZA

21ean, hainbat prestakuntza-jarduera garatu dira, Ertzaintza osatzen duten pertsonak kualifika daitezen, hala barne-sustapeneko ikastaroen bidez, nola lanbidean gora egiteko, espezializatzeko, eguneratu eta hobetzeko edota euskara ikasteko.

4.2 FORMACIÓN

Durante el año 2021 se han desarrollado diferentes actividades formativas encaminadas a que las personas que integran la Ertzaintza se cualifiquen, bien por cursos de promoción interna, bien por ascenso, especialización, actualización y perfeccionamiento, jornadas formativas o de capacitación lingüística en euskera.

IKASTAROAK / CURSOS

Barne-sustapena / Promoción interna	
XXIX. Promozioak / XIXX Promoción	**701** ikasle/alumnos
Igotzeko/Ascenso	
Komisario/Comisario	**21** ikasle/alumnos
Espezializatzeko / Especialización	
I.K.I./C.I.C.	**83** ikasle/alumnos
Eguneratzeko eta hobetzeko / Actualización y perfeccionamiento	
59 ikastaro / 59 cursos	**3264** agente/s
Prestakuntza-jardunaldiak / Jornadas formativas	
7 jardunaldi / 7 jornadas	**74** agente/s

LAN-ORDUTEGIAREN BARRUAN EUSKARA IKASTEA

CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA EN HORARIO LABORAL

1. HE / PL1 > **2 IKASTAROAK / CURSOS**	**53** agente/s
2. HE / PL2 > **2 IKASTAROAK / CURSOS**	**100** agente/s

ERTZAINTAKO PRESTAKUNTZA-DATU GLOBALAK*

DATOS GLOBALES FORMACIÓN*

Urtean zehar eman dira
prestakuntza-ordu eman zaie

A lo largo del año se han impartido
horas de formación

923509,00

guztira
agente (taldekoak)

a un total de
agentes del colectivo

4214

eta batez beste
ertzaineko

con un promedio de
horas por ertzaina

219,15

* Iturria: PLEA Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia.

* Fuente: AVPE, Academia Vasca de Policía y Emergencias.

4.3 AINTZATESPENAK

2021ean, COVID-19ren ondoriozko pandemia dela-eta ezarritako prebentzio-neurriek eragina izan dute Ertzaintzari eta haren agenteei egin zaizkien aintzatespen-ekitaldietan, dela lan indibidualagatik egindakoetan, dela talde-lanagatik egindakoetan. Ekitaldi batzuk ezin izan dira egin, eta beste batzuk, berriz, muga askorekin egin dira, osasun-krisialdiaren ondorioz.

Ekainaren 5ean, Lehendakaria buru zela, ekitaldi bat egin zen Arkautin, zerbitzuan hildako agenteak zoriondu, kondekoratu eta gogoratzeko. Ekitaldi hori bertan behera utzi zen 2020an, eta mandatariak egin zuen aintzatespen-deklarazio ofiziala. Oraingo honetan, 36 ertzain zoriondu ziren, azken urteotan jarduketa inportanteak gauzatu dituztelako zerbitzu-lanetan. Era berean, kondekorazioak eman zitzaizkien hainbat erakunde eta pertsonari, segurtasun publikoaren arloan egindako jarduera txalogarriengatik edota Ertzaintzaren alde egindako lanagatik. Guztira, 24 kondekorazio eman ziren, eta horietako 16 ertzainentzat izan ziren.

4.3 RECONOCIMIENTO

En el año 2021, las medidas preventivas adoptadas por la pandemia por COVID-19, han afectado a los actos de reconocimiento al trabajo individual y colectivo de la Ertzaintza y de sus agentes. Algunos de los eventos no se han podido llevar a cabo y otros lo han hecho bajo las limitaciones derivadas de la crisis sanitaria.

El 5 de junio, tiene lugar en Arkaute un acto de felicitación, condecoración y recuerdo a las y los agentes fallecidos en servicio, presidido por el Lehendakari. El acto se había suspendido en el año 2020, y fue el mandatario quien realizó una declaración institucional de reconocimiento. En esta ocasión, se felicita a 36 ertzainas que durante los dos últimos años han protagonizado actuaciones de especial relevancia en el servicio. Así mismo, se conceden condecoraciones a instituciones o personas por sus actuaciones meritorias en el ámbito de la seguridad pública o por la labor efectuada en favor de la Ertzaintza. Se otorgan un total de 24 condecoraciones, 16 de ellas a ertzainas.

Kanpotik jasotako aintzatespenen artean, Euskalit Kalitaterako Euskal Fundazioak emandakoa nabarmentzen da. Izan ere, 5S kalitateko 65 diploma eman zitzaizkien ertzain-etxeei eta kanpo-ebaluazioetan 60 puntu baino gehiago lortu zuten zerbitzuei, 2020an eta 2021ean biltegi, bunker eta bestelako tokietan egindako kudeaketa-lan bikainagatik.

Ertzaintzako emakume ofizial batek Frantziako Polizia Nazionaleko domina jaso zuen, Eusko Jaurlaritzak Madrilen duen Kanpo Ekintzako Ordezkaritzan. Hala, aitortu egin zitzaion zeinen lankidetza-harreman eta -lan polizial apartak egin zituen Frantzia eta EAEko bitarteko modura.

Era berean, emakume ertzain batek Bizkaiko emakume hautetsien V. Batzarraren aintzatespena jaso zuen Ertzaintzako emakume-taldearen izenean, omenaldi-ekitaldi batean. Omenaldi-ekitaldi hori 19 emakume-talderi egin zitzaien, 2021ean pandemiako lehen lerroan egindako lan apartagatik.

Entre los reconocimientos externos, destaca el de la Fundación Vasca para la Calidad, Euskalit, que hace entrega de 65 diplomas de calidad 5S, otorgados a aquellas Ertzain-etxeak y servicios que han obtenido más de 60 puntos en las evaluaciones externas. La excelente gestión desarrollada durante los años 2020 y 2021 en almacenes, búnkeres y otros espacios, les hacen merecedores de estas distinciones.

Una oficial de la Ertzaintza, recibe la medalla de la Policía Nacional de Francia en un acto que tiene lugar en la Delegación de Acción Exterior del Gobierno Vasco en Madrid. Se reconoce su excelente relación y trabajo de cooperación policial como oficial de enlace, entre Francia y Euskadi.

Así mismo, una ertzaina, en representación del colectivo de mujeres de la Ertzaintza, recibe el reconocimiento de la V Asamblea de mujeres electas de Bizkaia en un homenaje dirigido a 19 colectivos de trabajadoras que durante el año 2021 han tenido una labor destacada en la primera línea de la pandemia.

Ertzaintzari emandako 5s diploma
Diplomas 5s otorgados a la Ertzaintza 2020-2021

Material-biltegiak Almacenes de material	**Ebidentzia-biltegiak** Almacenes de evidencias	**Bunkerrak** Búnkeres	**Guardiako ikerketako lan-eremua** Área de trabajo de investigación de guardia	**Dokumentazio-biltegia** Almacén de Documentación
22	28	13	1	1
65 diploma / diplomas				

Euskalitek emandako diplomak.

Diplomas otorgados por Euskalit.

5. BERRIKUNTZA

Dituen baliabideak kudeatuta eta antolatuta, Ertzaintzak berrikuntza bultzatzen du, ezagutza berriak txertatzeko eta irtenbideak sortzeko, polizia-zerbitzu eta prozesu berriak garatzeko edo egon daudenak hobetzeko.

Segurtasunaren eta mehatxu berrien erronkari efizientziaz erantzuteko, tresna egoki eta aurreratuak txertatu behar dira. 2021ean, Ertzaintzak hainbat prozesu hasi edota garatu ditu teknologia berritzeko, informatika- eta telekomunikazio-sistemak eguneratzeko.

5.1 GRABAKETA INTEGRATUKO PROIEKTU PILOTUA

"3i kusle" proiektu pilotuaren helburua da: ertzainen jarduketen gardentasuna bermatzea, haien segurtasun juridikoa areagotzea eta hobeto aurkeztea delitu-egitateen inguruko probak. Proiektu hori 2021eko urriaren 25ean abiatu zen, eta 2022ko lehen astean amaituko da. Proiektu horretan, Bilboko, Vitoria-Gasteizko eta Irungo ertzain-etxeetako agenteek grabazio-kamera pertsonalak jarri dituzte uniformeetan. Zerbitzuan zebiltzan agenteek, guztira, 50 kamera erabili dituzte, hiru lan-txandetan eta proba-laborategiko txanda bietan.

Aurreikusita dago behin betiko proiektua 2022an eta hurrengoetan hastea; beraz, proiektu pilotuko ondorioak funtsezkoak izango dira behin betikoetarako. Helburua da sistema horiekin hornitzea Herritarrak Babesteko uniformea darabilten baliabide guztiak.

5. INNOVACIÓN

La Ertzaintza impulsa la innovación mediante la organización y gestión de los recursos de los que dispone, con el fin de potenciar la incorporación de nuevos conocimientos y la generación de soluciones, que permiten desarrollar nuevos procesos y servicios policiales o mejorar los ya existentes.

Responder con eficiencia al reto de la seguridad, de las nuevas amenazas, significa incorporar herramientas adecuadas y avanzadas. Durante el año 2021, la Ertzaintza ha iniciado y/o desarrollado diferentes procesos de innovación tecnológica, con objeto de actualizar los sistemas informáticos y de comunicaciones.

5.1 PROYECTO PILOTO DE GRABACIÓN INTEGRADO

Garantizar la transparencia de las actuaciones de las y los ertzainas, incrementar su seguridad jurídica y mejorar la aportación de pruebas ante hechos delictivos, es el objetivo de "3i kusle", proyecto piloto que arranca el 25 de octubre de 2021 y finaliza en la primera semana del año 2022 y en el que agentes de las Ertzain-etxeak de Bilbao, Vitoria-Gasteiz e Irún, incorporan cámaras personales de grabación a su uniformidad. Se utilizan un total de 50 cámaras que se distribuyen entre los agentes en servicio, en los tres turnos de trabajo y en dos laboratorios de pruebas.

Las conclusiones del proyecto piloto serán fundamentales para el inicio del proyecto definitivo previsto para el ejercicio 2022 y siguientes. Se tiene como objetivo el equipar con estos sistemas a todos los recursos uniformados de Protección Ciudadana.

5.2 BALIABIDEAK ETA INTZIDENTEAK KUDEATZEKO SISTEMA BERRIA

Teknologia berriek dakarten bilakaeraren eta berrikuntzaren aldeko apustu baten barruan, irailean, Euskarri ezarri zen, intzidenteak eta baliabideak kudea tzeko tresna berria eta Zutabe ordezkatzen duena.

Euskarri, berriz, puntakoa da EAEko segurtasun publikoa digitalki eraldatzeko proiektu baten barruan. Oso lankidetza estuko estrategia baten bidez, gure gizartea babesteko hainbat arlotan parte hartzen duten agentzien sinergiak aprobetxatu nahi dira, norabide anitzeko komunikazio zuzena eta efizientea izateko.

Hainbat sistema erabat integratu dira, hala nola telefonia, GIS (intzidenteak eta baliabideak geolokalizatzeko modulua eta TETRA egoerak. Ondorioz, jardueraren trazabilitateari esker, efikazagoak dira ematen diren zerbitzuak, eta, horrez gain, segurtasunaren printzipio gidariak babesten dituzte; esaterako, konfidentzialtasuna, autentikotasuna eta informazioaren osotasuna, besteak beste.

Teknologia hori erabilita, EI/GI etxeko indarkeriako eta genero-indarkeriako biktimei ematen zaien laguntza indartuko da, inplikatutako aplikazioen elkarreragingarritasun handiagoari esker (Bortxa, SIP).

Euskarri, bestalde, intzidentziak kudeatzeko tresna berritzailea eta sinplea da, eta erraz-erraz ikasten da. Beraz, erabiltzen duten ertzainek tresna baliagarria, hurbila eta xaloa izango dute beren ingurune funtzionalean.

5.2 NUEVO SISTEMA DE GESTIÓN DE RECURSOS E INCIDENTES

En una apuesta hacia la evolución e innovación que marcan las nuevas tecnologías, se implementa en septiembre Euskarri, la nueva herramienta de gestión de incidentes y recursos que sustituye a Zutabe.

Euskarri parte como punta de lanza de un proyecto de transformación digital de la seguridad pública en Euskadi. A través de una estrategia altamente colaborativa que permite una comunicación multidireccional directa y eficiente, se pretende aprovechar las sinergias de las diferentes Agencias que intervienen en las distintas áreas de protección de nuestra sociedad.

La plena integración de sistemas como la telefonía, GIS (módulo de geolocalización de incidentes y recursos), y de estados TETRA, permite que gracias a la trazabilidad de la actividad se alcance una mayor eficacia en la respuesta de prestación de servicio y además, que se salvaguarden los principios rectores de la seguridad, tales como confidencialidad, autenticidad e integridad de la información entre otros.

Con el uso de esta tecnología, la asistencia a víctimas de violencia doméstica y de género (VD/VG), se va a ver reforzada, dada la mayor interoperatividad de las aplicaciones implicadas (Bortxa, SIP).

Además de ser una herramienta de gestión incidental innovadora, Euskarri se caracteriza por su simplicidad; su corta curva de aprendizaje permite que los y las ertzainas usuarios dispongan de una herramienta útil, cercana y más amigable en su entorno funcional.

5.3 DATORRENA

Hainbat ertzain-unitate eta -zerbitzutako ertzainek osatzen dute Datorrena Lantaldea. Ertzain horiek Ertzaintzako proiektu estrategiko batzuk gainbegiratu eta garatzen dituzte; besteak beste, nabarmen daitezke Mugituz eta Eskura mugikortasun-proiektuak, Baietz inteligentziakoa, edota formulario bidezko salaketa.

5.3 DATORRENA

Datorrena Lantaldea es un grupo de trabajo compuesto por ertzainas de distintas Unidades y Servicios que llevan a cabo la supervisión y desarrollo de varios proyectos estratégicos para la Ertzaintza, entre los cuales se pueden destacar los de movilidad Mugituz y Eskura, el de inteligencia Baietz, o la implantación de la denuncia formulario.

AKZ lanpostua Euskarri tresnarekin.
Puesto CMC en el que se ha implementado la herramienta Euskarri.

Mugituzi dagokionez, 2021ean, ekipo eramangarriak esleitu zaizkie Trafikoko lurralde-unitateetako ikerketa-baliabideei. Horri esker, bulego-zerbitzuak mugi daitezke. Eskurari dagokionez, mugikortasun-kontzeptu bizkorragoa eta intuitiboagoa da; APP aplikazioetan oinarritzen da, eta pentsatuta dago Herritarrak Babesteko baliabideentzat. 2021ean, proba pilotu bat burutu zen Laguardiako, Donostiako eta Trafikoko Bizkaiko Lurralde Unitatearekin, eta ondo hartu zuten parte hartu zuten baliabideek.

Beste alde batetik, 2020ko hasieran, proiektu bat jarri zen martxan, salaketak formulario bidez egiteko. Salaketa-mota horren bidez, sistema informatiko polizialean erraz asko jaso daitezke salaketak, datuak egituratuta dituen formulario baten bidez. Aurreikusten da 2022ko urtarrilaren 11n jartzea martxan, eta eskuragarri egotea ebasketa-delituetarako, kalteetarako eta iruzur-karguetarako. Ondorioz, oso sinplifikatuko dira, % 40an edo, Ertzaintzan urtero jartzen diren salaketak.

Aldi berean, antzeko salaketa-eredu bat egokitu da Eusko Jaurlaritzako Tramitagune plataforma digitalerako. Hala, eredu hori erabilita, herritarrek modu telematikoan salatu ahal izango dituzte era horretako delituak, polizia-etxebatera joan gabe. Espero da 2022an zehar garatzea salaketa elektronikoa eta aukerak zabaltzea beste delitu-mota batzuk ere formulario bidez salatzeko.

Respecto a Mugituz, en 2021 se ha completado el despliegue de equipos portables en los recursos de investigación de las Unidades Territoriales de Tráfico, lo cual les permite disponer de los servicios de oficina en movilidad. En cuanto a Eskura, un concepto de movilidad más ágil e intuitivo, basado en aplicaciones APP y pensado para los recursos de Protección Ciudadana; en 2021 se llevó a cabo una prueba piloto en las unidades de Laguardia, Donostia – San Sebastián y UTT Bizkaia, con una gran aceptación por parte de los recursos participantes.

Por otro lado, a principios de 2020 se puso en marcha el proyecto de la denuncia formulario, que permite recoger de forma sencilla y en el sistema informático policial, denuncias mediante un formulario con datos estructurados. Su puesta en funcionamiento, prevista para el 11 de enero de 2022, estará disponible para los delitos de hurto, daños y cargos fraudulentos, lo cual simplificará, de forma significativa, la recogida de aproximadamente el 40% de las denuncias que se interponen anualmente en la Ertzaintza.

De forma paralela, se ha adaptado un formulario de denuncia similar para la plataforma digital del Gobierno Vasco, Tramitagune, lo cual permitirá que, para los mismos tipos delictivos, la ciudadanía pueda interponer una denuncia de forma telemática, sin tener que desplazarse a un centro policial. A lo largo de 2022 se espera culminar el desarrollo de la denuncia electrónica, así como ampliar los tipos delictivos para la denuncia formulario.

5.4 H2020 PROIEKTUAK

2021an, Ertzaintza finkatu egin da berrikuntzarekin eta ikerketarekin konprometitutako erakunde modura. Horrela, bada, H2020 programako 17 proiektuetan parte hartzen du. Proiektu horietatik, hamaika 2021ean hasi dira, eta barnean hartzen dituzte hala berrikuntza-ekintzak (IA) nola ikerketa eta berrikuntzakoak (RIA) eta ISF (Police) programako proiektu berriak.

Helburua izan da parte hartzea Ertzaintzako interes estrategikoetan gehien eragiten duten proposamenetan –beti ere, Ertzaintzako misioaren, bisioaren eta balioen arabera eta plan estrategikoaren arabera– eta barnean hartzea arlorik interesgarrienak eta segurtasunerako erronka handiagokoak, zeinetan Ertzaintzak gaitasunaz eta kaudimenaz erantzun behar baitio zerbitzatzen duen gizarteari.

Proiektu horiek garatzen lortutako esperientzia-urteek egiaztatzen dute ezen, helburu horiek lortzeko, Ertzaintzak parte hartu behar duela Europako kontsortziorik onenetan: enpresa teknologikorik onenak eta ikerketa- eta berrikuntza-zentro bikainak, unibertsitateak, erakundeak eta beste antolakunde batzuk, larrialdietako edo segurtasuneko arreta-zerbitzuak ematen dituztenak.

Barruko mailan, eragina positiboa da: gaitasunak hobetzen dira, eta etengabe hobetzeko prozesuak, prozedurak, teknologiak tresnak eta zerbitzuak heltzen dira. Horrez gain, Ertzaintzak berretsi egiten du euskal gizartearekin duen konpromisoa, eta gure ingurune teknologiko, zientifiko eta akademikoari laguntzen dio beste finantzaketa-aukera batzuk lortzen, balioa ematen eta aberastasuna sortzen dutenak.

Prepare prestatzeko lanak hasita daude. Proiektu hori 2022an hasiko da, eta helburua da lankidetzako inklusio-politikak sustatzea eskuin-muturreko gurasoen seme-alabentzat edo guraso islamisten seme-alabentzat.

5.4 PROYECTOS H2020

La Ertzaintza se ha consolidado en el 2021 como una organización comprometida con la innovación y la investigación, ampliando su participación en 17 proyectos del programa H2020, 11 de los cuales se han iniciado en 2021 y que engloban tanto acciones de innovación (IA) como de Investigación e Innovación (RIA) y nuevos proyectos del programa ISF (Police).

El objetivo ha sido participar en las propuestas con mayor impacto en los intereses estratégicos de la Ertzaintza, conforme a su Misión, Visión y Valores, y a su Plan Estratégico, alcanzando aquellas áreas de mayor interés y que suponen un mayor reto para la seguridad y en las que la Ertzaintza debe responder con capacidad y solvencia a la sociedad a la que sirve.

Los años de experiencia adquiridos en el desarrollo de estos proyectos acreditan que la forma de conseguir estos objetivos implica la participación de la Ertzaintza en los mejores consorcios de Europa, formados por las mejores empresas tecnológicas y por excelentes centros de investigación e innovación, universidades, instituciones, así como por otras organizaciones que prestan servicios de atención en emergencias o seguridad.

Su impacto positivo a nivel interno, en la mejora de las capacidades y en la maduración de los procesos de mejora continua, procedimientos, tecnologías, herramientas y servicios, refrenda el compromiso de la Ertzaintza con la sociedad vasca facilitando a nuestro entorno tecnológico, científico y académico, el acceso a oportunidades de financiación que aportan valor y creación de riqueza.

Se han iniciado los preparativos para Prepare, proyecto que comenzará en enero de 2022 y que tiene como objetivo la promoción de políticas colaborativas de inclusión en relación con los hijos de padres de Extrema Derecha e islamista.

ERTZAINTZAREN PARTE-HARTZEA EUROPAKO H2020 PROIEKTUETAN
PROYECTOS EUROPEOS H2020 EN LOS QUE PARTICIPA LA ERTZAINTZA

PREVISION

Informazioa eta datu-fluxua kudeatzeko aukera ematea, ziberkrimenaren eta terrorismoaren kontra borrokatzeko.
Ofrecer una gestión de la información y el flujo de datos para luchar contra el cibercrimen y el terrorismo.

INGENIOUS

Hondamendi-mota guztiei aurre egiteko gaitasuna areagotzea.
Aumentar la capacidad de respuesta en todo tipo de desastres.

Impulse

Herritarrei erraztea harremanak on line izatea, delitu-egiteak jakinarazpena barne.
Facilitar relaciones online con la ciudadanía, incluida la comunicación de hechos delictivos.

ALIGNER / POP AI / STARLIGHT

Adimen artifizialarekin lotutako proiektuak, hainbat alderditakoak: pertsonetan duten eraginari buruzkoak, haien oinarrizko eskubideei buruzkoak edota ikuspuntu teknologiko instrumentalari buruzkoak.
Proyectos relacionados con la inteligencia artificial, en diferentes vertientes, desde su interés en los impactos en las personas, sus derechos fundamentales, o desde el punto de vista tecnológico instrumental.

APPRAISE

Espazio publikoetako kirol-ekitaldiak eta -proba dinamikoak babestea.
Protección de eventos y pruebas deportivas dinámicas y en espacios públicos.

UNCOVER

Esteganalisiko eta esteganografiako tresnak ezartzea.
Implementar herramientas de esteganálisis y esteganografía.

2019 | 2020 | 2021

DARLENE

DARLENE

Segurtasun proaktiboko irtenbide bat ematea, datu-bolumen handiak sailkatzeko eta delitu-jarduerak iragartzeko, haiei aurrea hartzeko eta prebenitzeko.
Dar una solución de seguridad proactiva que permita clasificar grandes volúmenes de datos para predecir, anticipar y prevenir actividades delictivas.

LAW-GAME / TRACE

Potentzial handiko adimen artifiziala erabiltzea polizia gaitzeko.
Utilización de la inteligencia artificial con gran potencial para capacitar a la policía.

NOTIONES

Segurtasun- eta inteligentzia-zerbitzuetako profesionalen sare bat sortuta, zibererasoak lantzea.
Abordar los ciberataques mediante la creación de una red de profesionales de los servicios de seguridad e inteligencia.

MASC-CBRN

Eraso kimiko, biologiko, radiologiko eta nuklearrak prebenitzea eta neutralizatzea.
Prevención y neutralización de ataques químicos, biológicos, radiológicos y nucleares.

S4ALLCITIES

S4ALLCITIES

Europako hiri inteligenteetan, espazio ireki seguruak eta babestuak bermatzea.
Garantizar espacios abiertos seguros y protegidos en las ciudades inteligentes europeas.

CYBERSAPCE

EBko zibersegurtasuna, lankidetza eta zibererasoak jakinarazteko moduak hobetzea.
Mejorar la ciberseguridad, la cooperación y la notificación de ciberataques en la UE.

engage

Komunitateen gaitasuna hobetzea, hondamendiei aurre egiteko.
Mejorar la capacidad de las comunidades para responder a los desastres.

PREPARE*

Lankidetzako inklusio-politikak sustatzea eskuin-muturreko gurasoen seme-alabentzat edo guraso islamisten seme-alabentzat.
Promoción de políticas colaborativas de inclusión en relación con los hijos de padres de Extrema Derecha e islamista.

* 2021ean, prestaketa-lanak egin dira, eta 2022n hasiko da.
En el año 2021 se llevan a cabo los preparativos, que se iniciarán en enero de 2022.

6. GIZARTEA

Ertzaintzak ezaguna izan nahi du barruko etika profesionala sustatzeagatik eta bere jarduerak gainbegiratzeagatik. Ertzaintzak gizartearekin duen konpromisoa neurtzeko, aztertzen da ea gardena den, ea euskaraz egitea sustatzen duen, ea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzen duen, eta ea, oro har, giza eskubideak errespetatzen dituen. Gizartearekin dituen harremanak, berriz, elkarlanaren bidez eta elkarren mesederako aliantzen bidez bultzatzen ditu; bake- eta elkarbizitza-arloan sustatzen direnak barne. Arlo horietan egiten dituen ahaleginak ezagutzera emateko, Ertzaintzak kanpo-komunikazio plan bat bultzatuko du.

6.1 OPEN SOCIETY

Sortu zenetik, Ertzaintzaren eredua polizia hurbilarena izan da: zerbitzu publikoa emateko orduan, gizarteari atxikia eta gizartearentzat gertu-gertukoa. Izaera hori, berriz, argi eta garbi ikusten da herritarren premiei erantzuteko joeran, zeren Ertzaintzak herritarren errekerimendu guztiei erantzun behar die, hala segurtasun-arlokoei nola laguntza-arlokoei.

Ertzaintza lankidetzan ari da Open Society fundazioarekin inklusio-politikak sustatzeko gutxiengo etnikoentzat eta talde ahulentzat. Ondorioz, aurten, proiektuak garatu dira entzumen-desgaitasuna jasaten duten pertsonekin batera eta EAEko komunitate musulmaneko kideekin batera.

Izan ere, COVID-19ak ekarri duen egoeraren ondorioz, pertsona ahulekin komunikatzeko premia sortu da –zehazkiago esanda, entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin–, ezagutu nahi baita zer muga dakarkien maskara erabili beharrak. Era berean, trebetasunak lortu nahi dira 3000 laguneko talde batekin elkarreragiteko, jakinik haien lehen hizkuntza zeinu-hizkuntza dela. Ekainaren 21a eta 25a bitartean, "Sentsibilizazioa eta komunikazioa pertsona gorrekin" izeneko jardunaldiak antolatu ziren Erandion. Haien helburua izan da polizia-jarduketek efikaziaz erantzutea entzumen-dibertsitate funtzionala duten pertsonei, eta aurrera

6. SOCIEDAD

La Ertzaintza quiere ser reconocida por el fomento que a nivel interno se hace de la ética profesional y de la supervisión de sus actividades. El compromiso de la Ertzaintza con la sociedad también se mide por su transparencia, su impulso al uso del euskera, al respeto a la diversidad, a la igualdad de hombres y mujeres y, en general, por su respeto a los Derechos Humanos. La relación con la sociedad se impulsa mediante trabajo colaborativo y el desarrollo de alianzas mutuamente provechosas, incluyendo las que se impulsan en materia de paz y convivencia. Para dar a conocer sus esfuerzos en estas materias, la Ertzaintza impulsa un plan de comunicación externa.

6.1 OPEN SOCIETY

El modelo de la Ertzaintza, desde su creación, se ha correspondido con el de una policía cercana que trabaja vinculada y muy próxima a la sociedad a la que sirve y en la que desarrolla su carácter de servicio público. Este carácter se manifiesta en una clara orientación hacia las necesidades de la ciudadanía a quien la Ertzaintza debe atender en todos sus requerimientos, tanto vinculados con la seguridad como aquellos de naturaleza asistencial.

La Ertzaintza colabora con la Fundación Open Society en diferentes iniciativas de promoción de políticas de inclusión, orientadas a minorías étnicas y a colectivos desfavorecidos. Fruto de ello han sido los proyectos desarrollados este año en colaboración con personas que sufren discapacidad auditiva y con miembros de la comunidad musulmana de Euskadi.

De la situación motivada por el COVID-19 surge la necesidad de mejorar la comunicación con personas vulnerables, más concretamente personas con discapacidad auditiva, conocer las limitaciones que el uso obligatorio de la mascarilla conlleva y adquirir destrezas en la interacción con un colectivo de 3000 personas cuyo primer idioma es el lenguaje de signos. Las jornadas que se celebran en Erandio entre los días 21 y 25 de junio bajo el título "Sensibilización y

"Islamari buruzko aurreiritziak desegiten" Jardunaldia, Open Society fundazioak finantzatuta. Bizkaia Aretoan egin zen Bilbon, azaroaren 17an.

Jornada "Desmontando prejuicios sobre el Islam", financiada por la Fundación Open Society se desarrolla el 17 de noviembre en el Bizkaia Aretoa de Bilbao.

egitea talde hori gizarteratzen. Gainditzen Tolosaaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak ikus-entzunezko material espezifikoa eman dio Ertzaintzari, hain zuen ere oinarrizko lexiko bat eta eguneroko egoeren bideo bat, komunikazioa hobetzeko poliziaren eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonen artean.

Beste alde batetik, Lehendakariorde lehen eta Segurtasun sailburu Josu Erkoreka buru dela, jardunaldi bat egin da islamen inguruko estereotipo eta alborapenei buruz. EAEko komunitate islamikoko lagunak izan ziren bertan, lan-mahaietako dinamizatzaile modura. Mahaiok hogeita hamar pertsona ingurukoak ziren, denak oso profil hetereogeneokoak (Ertzaintzako eta udaltzaingoetako agenteak, Hezkuntzako profesionalak, epaileak, abokatuak, komunikabide publikoetako langileak, unibertsitate-ikertzaileak, eta abar), eta hainbat gai landu zituzten, hala nola MENAk, erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoa edota emakume musulmanen kontrako aurreiritziak.

Horrez gain, desgaitasuna duten pertsona-talde batzuekin Ertzaintzak dituen harremanak hobetzeko asmoaz, kontsultarako material didaktikoa prestatu da, ertzainei laguntzeko talde horiekin izan ditzaketen jardueretan; dela biktima direlako, dela delitu-egitate edo arau-hauste administratibo baten egile izan daitezkeelako. Lan hori egiteko, harremanak izan dira egunerokotasunean talde horiekin lan egiten duten elkarteekin: Eragintza, ASAFES (Buru-gaixotasuna du-

comunicación con personas sordas", tienen como objetivo, conseguir una respuesta eficaz en las actuaciones policiales en las que hay involucradas personas con diversidad funcional auditiva, además de avanzar en la inclusión social de este colectivo. A tal fin, Gainditzen, la Asociación de Personas Sordas de Tolosaldea-Goierri, pone a disposición de la Ertzaintza material audiovisual específico que consta de un vocabulario básico y unos videos a modo de ejemplo de situaciones cotidianas para mejorar la comunicación entre la policía y las personas con discapacidad auditiva.

Por otro lado, la orientación y la sensibilización sobre los estereotipos y sesgos que se crean en torno al Islam, es objeto de una jornada presidida por Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, Josu Erkoreka y cuenta con la presencia de personas de la comunidad islámica de Euskadi, como dinamizadores de mesas de trabajo en las que, una treintena de personas, profesionales de perfil muy heterogéneo (agentes de la Ertzaintza y de las Policías Locales de Euskadi, profesionales del ámbito de la educación, judicatura, abogacía, de los medios de comunicación públicos, investigación universitaria, etc.) abordan cuestiones como los MENA, el terrorismo de pretexto religioso o los prejuicios contra la mujer musulmana.

Además, con el propósito de mejorar las relaciones de la Ertzaintza con otros colectivos de personas con discapacidad, se ha elaborado material didáctico de

ten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkartea), Isabel Orbe eta APNABI (Autismo-espektroaren nahasmendua duten pertsonen familien Bizkaiko Elkartea).

consulta que sirva a los y las ertzainas ante posibles actuaciones con estos colectivos, ya sean víctimas o posibles autores de un hecho delictivo o una infracción administrativa. Esta tarea se ha realizado en colaboración con cuatro asociaciones que trabajan con estos colectivos en el día a día; Eragintza, ASAFES (Asociación Alavesa de Familiares y Personas con Enfermedad Mental), Isabel Orbe y APNABI (Asociación de Familias de personas con un Trastorno del Espectro del Autismo Bizkaia).

6.2 EUSKARAZ EGITEKO PLANA

Ertzaintzan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren helburua da ertzainek euskaraz jakitea eta euskaraz egitea lan-harremanetan eta herritarrekin dituzten harremanetan, eta euskara sartzea Ertzaintzako kudeaketa-sisteman.

2021. urtean zehar, aurrerapausoak eman dira Plana garatzeko. Dena dela, proiektuak ezin izan du aurrera egin, pandemia globalaren ondorioz ezarri diren prebentzio-neurriak direla-eta. Ertzaintzan, euskara ikastera bideratutako ekimen eta esku-hartzeak lehentasunezko unitate eta eremuetan gauzatu dira ondoen; izan ere, proiektua unitate eta eremu horietan dago aktibatuta.

Plan hori sustatuta eta 2021ean praktikan jarri diren ekintzak garatuta, lortu nahi izan da gizarte elebidunaren eskariei erantzutea, baina, era berean, erantzun bat eman nahi izan zaio Ertzaintzako belaunaldi-errelebo-ari eta plantilla berriari; izan ere, plantilla berri horrek hobeto daki euskaraz. Hori argi ikusi da abenduan oinarrizko eskalan sartu diren agente berriekin, zeren ertzainen % 90ek, gutxienez, euskara ulertzen dute.

Planean definitutako helburuak garatzeko, komunikazioari eman behar zaio garrantzia. Ildo horretatik, aurreikusita dago zabalkunde-bideo bat prestatzea 2022ko lehen hilabeteetarako.

6.2 PLAN DEL USO DEL EUSKERA

El II Plan de Normalización del Uso del Euskera en la Ertzaintza tiene como objetivo la implementación del conocimiento del euskera, su uso en las relaciones laborales y con la ciudadanía y su incorporación al sistema de gestión de la Ertzaintza.

Durante el año 2021 se ha avanzado en el desarrollo del Plan, si bien, las medidas preventivas adoptadas por la situación de pandemia global, han condicionado la expansión del proyecto. Ha sido primordialmente en las unidades y zonas consideradas prioritarias, en las que el proyecto se encuentra activado, donde mejor se han materializado las diferentes iniciativas e intervenciones dirigidas a promover el conocimiento del euskera en la Ertzaintza.

La promoción de este Plan y el desarrollo de las acciones que a lo largo del 2021 se han puesto en práctica, han tenido por objeto atender las demandas de una sociedad bilingüe pero también tratan de responder al relevo generacional y a la nueva plantilla de la Ertzaintza que posee mayores capacidades lingüísticas en euskera, hecho que se constata en las últimas incorporaciones de agentes de la escala básica en diciembre, donde al menos el 90% de los y las ertzainas entienden euskera.

Para avanzar en el desarrollo de los objetivos definidos en el Plan, se hace necesario dar relevancia a su comunicación, en este sentido, está previsto para los primeros meses del año 2022, la elaboración de un vídeo de difusión.



Plana hasita /garatzen
Plan iniciado / en desarrollo

Plana hasita /Diseinatze-fasean
Plan iniciado /en fase de reactivación

EUSKARAREN ERABILERA ERTZAINTZAN / USO DEL EUSKERA EN LA ERTZAINTZA

	EKINTZA NABARMENAK / ACCIONES DESTACADAS
Euskara kudeatzea Gestión del euskera	**Euskara kudeatzeko lanak ezartzea unitateen agendetan.** Incorporación de la gestión del euskera en la agenda de las unidades.
Barneko harremanak Relaciones internas	**Lan-bilera batzuk euskaraz egitea.** Establecimiento de reuniones laborales que se desarrollan en euskera.
Kanpo-harremanak Relaciones externas	**Ezagutze-mailaren arabera, harremanak euskaraz izango dira udaltzaingoekin, ordezkari politikoekin, agenteekin, eta abarrekin.** Establecimiento de relaciones con: Policía Local, representantes políticos, agentes...etc. que dependiendo del grado de conocimiento, se desarrollan en euskera. **Gehiago koordinatzen dira PLEA Polizia eta Larrialdietako Euskal Poliziako euskara-planak eta Ertzaintzakoak.** Se desarrolla una mayor coordinación con los planes de euskera de la AVPE (Academia Vasca de Policía y Emergencias) y de la Ertzaintza.
Komunikazioa Comunicación	**Ele bitan argitaratzen dira polizia-jarduerari buruzko dokumentuak (egunero).** Publicación bilingüe de documentos de actividad policial (Egunero).
Harrera-planak Planes de acogida	**Hizkuntza-irizpideak sartuko dira herritarrak hartzeko.** Inclusión de criterios lingüísticos en la acogida de la ciudadanía. **Hizkuntza-irizpideak sartuko dira ertzainak hartzerakoan, eta jakinaraziko zaie nolako gaitu soziolinguistikoki eta zer lan egiten den Euskararen Erabilera Planaren inguruan.** Inclusión de criterios lingüísticos en la acogida de las y los ertzainas a quienes se informa de la capacitación sociolingúistica y de labor desarrollada en torno al Plan del Uso del Euskera.
Dinamikak aktibatzea Activación de dinámicas	**Dinamikak aktibatzen dira euskaraz gehiago egiteko. Unitateetako hizkuntza-ohiturak berbideratu dira; sarritan, orain euskaraz izan ohi dira lehen gaztelaniaz ziren harremanak.** Se activan dinámicas para incrementar el uso del euskera. Se reorientan hábitos lingüísticos en las unidades y, en muchas ocasiones, las relaciones que antes eran en castellano se desarrollan cada vez más en euskera.



AKZ Gipuzkoako Unitate Kontseiluak euskaraz egiten du.
Consejo de CMC Gipuzkoa realizado en euskera.

6.3 ERTZAINTZAK KANPOAN DUEN PRESENTZIA INDARTZEA

2021ean, Ertzaintzak kanpo-harremanak lantzen jarraitzen du; horretarako, parte hartzen du segurtasun integralarekin zerikusia duten ekitaldietan, edota beste polizia batzuekin lankidetza-hitzarmenak sinatu ditu, alde biko harremanak izateko, nazioartekoak.

Urriaren 20an eta 21ean, Bartzelonara joan zen, urtero egiten den "Security Forum" azokara; izan ere, topaketa horietan, segurtasun-arloko espezialista garrantzitsuak biltzen dira. Bere erakustokiaren bidez, Ertzaintzak ezagutzera ematen ditu erakundearen berezitasunak, barne-funtzionamendua eta polizia integralaren izaera, zeinak baimena baitu Schengen eremuan lan egiteko, Europako gainerako poliziak bezala. Era berean, konferentzietan ere parte hartzen du hizlari modura, zeinetan, lehen mailako beste profesional batzuekin batera, lantzen baita zer erronka eta aukera dituen eraldaketa digitalak segurtasun-arloan.
.

6.3 POTENCIACIÓN DE LA PRESENCIA EXTERIOR DE LA ERTZAINTZA

La Ertzaintza en el año 2021 continua estableciendo relaciones de carácter externo, ya sea participando en eventos relacionados con la seguridad integral o manteniendo relaciones bilaterales de carácter internacional con otras policías con las que conviene acuerdos de colaboración.

Los días 20 y 21 de octubre se asiste en Barcelona a la feria anual "Security Forum", un encuentro que reúne a importantes especialistas del sector de la seguridad. La Ertzaintza a través de su stand, da a conocer la singularidad de la institución, su funcionamiento interno y el carácter de policía integral que tiene autorización, como el resto de policías europeas, para operar en el espacio Schengen. Así mismo, se participa como ponentes en las conferencias que se celebran y en las que, junto a otros profesionales de primer nivel, se abordan los retos y las oportunidades de la transformación digital en el ámbito de la seguridad.

Azaroan, Belgikako poliziak Ertzaintzako hainbat egoitza eta ekipamendu bisitatu zituen, Ertzaintzak eta Anberesgo Poliziak 2017an sinatutako lankidetza-akordioak berresteko eta indartzeko.

Ertzaintzaren eta Anberesko Poliziaren lankidetzari buruz oso balantze positiboa egin ostean, akordio hori berretsi zen, trukatzen segitzeko hala informazioa eta polizia hobetzeko moduak nola mugetatik harago doan delinkuentzia borrokatzeko eta prebenitzeko esperientziak. Era berean, segitu nahi da lankidetzan jorratzen ordena publikoa eta segurtasuna, eta zehazki terrorismoa, krimen antolatua, ibilgailu lapurtuen nazioarteko trafikoa, dokumentu-faltsutzea edota droga-trafikoa.

Beste alde batetik, topaketak aukera eman du berriro definitzeko nola trukatu esperientziak polizia-kidegoen artean 2022an.

Ratificar y afianzar los acuerdos de cooperación que se suscribieron en el año 2017 entre la Ertzaintza y la Policía de Amberes, es el objeto de la visita que en noviembre la policía belga lleva a cabo en diferentes sedes y equipamientos de la Ertzaintza.

Tras realizarse un balance altamente satisfactorio de la colaboración entre la Ertzaintza y la Policía de Amberes, se revalida este acuerdo que permite continuar el intercambio de formación y perfeccionamiento policial, de experiencias en la lucha y prevención de una delincuencia que trasciende fronteras; y que reconoce abordar, en colaboración, el orden público y la seguridad y en concreto, el terrorismo, el crimen organizado, el tráfico internacional de vehículos robados, la falsificación de documentos o el tráfico de drogas.

El encuentro ha permitido así mismo redefinir el intercambio de experiencias entre ambos cuerpos policiales para el año 2022.

7. EMAITZAK

Ertzaintzaren kudeaketa-eredu aurreratuak, emaitza onak lortzea ekarriko du. Emaitza hauen neurketa gida bat da, ahaleginak jarduerarik eraginkorrenetara edo balio erantsi handiagoa ematen dutenetara bideratzeko.

Ertzaintzak datu osoak eta fidagarriak zabalduko ditu, ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa edo zein prozesutan murgilduta dagoen. Gardentasuna eta kontu ematea funtsezko gakoak izango dira.

7.1 DELITU-JARDUERA

Herritarren zerbitzura dagoen polizia integrala izaki, Ertzaintzarentzat, 2021. urtea ere erronka bat izan da; izan ere, udaltzaingoekin batera, aurre egin behar izan die Segurtasuneko eta Herritarrak Babesteko erronkei. EAEko bizilagun guztien segurtasuna bermatzen jarraitzeko egin beharreko lanaren adibide modura, Covid 19a edota ziberdelinkuentzia jar daitezke.

2021ean zehar, hainbat murrizketa egon dira. Ondorioz, delitu-kopurua, guztira, 2017koa baino txikiagoa izan da – salbu 2020koa–, Ertzaintzak 82947 delitu erregistratu baititu. Kriminalitate-tasa 37,46an geratu da 1000 biztanleko.

7. RESULTADOS

El modelo de gestión avanzada de la Ertzaintza redundará en la obtención de buenos resultados. La medición de estos resultados es una guía que permite centrar esfuerzos en aquellas actividades más eficaces o que ofrecen mayor valor añadido.

La Ertzaintza divulgará los datos completos y fiables, la información sobre los servicios que presta o los procesos en los que está inmersa. La transparencia y la rendición de cuentas serán aspectos clave.

7.1 ACTIVIDAD DELINCUENCIAL

Nuevamente, el año 2021 ha supuesto un reto para la Ertzaintza, una policía integral al servicio de la ciudadana vasca, que, en coordinación con las policías locales, ha tenido que afrontar los nuevos retos de Seguridad y Protección Ciudadana. La Covid 19 o la nueva ciberdelincuencia sirven de ejemplo como obstáculos a superar para seguir garantizando la seguridad de todas las personas que viven en Euskadi.

A lo largo de 2021 han existido diversas restricciones que han propiciado que la cifra total de delitos sea la más baja desde 2017, con la salvedad del año 2020, con un resultado de 82947 delitos registrados por la Ertzaintza. La tasa de criminalidad por 1000 habitantes queda en 37,46.

Arau-hauste penalak / Infracciones Penales	**- % 10,28**
Kriminalitate-tasa (1000 biztanleko) / Tasa de criminalidad (por 1000 hab.)	**37,46**
Inkulpatuak / Personas inculpadas *	**29966**

* Ertzaintzak jasotako datuak.

* Datos recogidos por la Ertzaintza.

Delitu-jokaerak berriro hasi dira iraganeko inertziak hartzen; dena den, delitu guztiek ez dute berdin jokatu murrizketak kendu eta gero.

2021eko datuek erakusten dute aurreko urtean baino delitu gehiago izan direla, baina erkaketa horrek ez du koherentziarik, zeren 2020ko urtea salbuespenezkoa izan zen, herritarren konfinamendua barne. Ildo horretatik, irudi errealistagoa lortzen da datuok 2019ko urtearekin alderatzen badira. Hala erkatuz gero, emaitza positibotzat jo daiteke, zeren Ertzaintzak 10.000 delitu-egitate gutxiago erregistratu ditu.

Baina apurtxo bat sakonduz gero zein izan diren 10.000 arau-hauste penal gutxiago horiek, ikus daiteke ebasketak 7.000 baino gehiago direla, eta, nahiz eta pertsegitu beharreko delitu-tipologia bat izan, ez du ondorio penalik; ezta beste tipo penal batzuk gizartean duten eragina ere, hala nola sexu-erasoak edo edota lapurreta-delituak, pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindakoak. Izan ere, azken delitu horiek 2021ean zehar hurbildu egin dira 2019ko balioetara, nahiz eta aurreko ekitaldiko baldintzak erdi-normaltasunekoak izan.

Oso esanguratsua da zenbat saiakuntza-mailako homizidio erregistratu diren Gipuzkoan, zeren horrek erakusten du gero eta arma zuri gehiago daudela bide publikoan.

Datu globaletan, aipatutako tipologiek ez dute eragin handirik; dena den, ez da gutxietsi behar zer eragin duten herritarrek segurtasunaz duten pertzepzioan.

Delitu-egitateetan inplikatutako adingabeen kopurua areagotu egin da (% 25 baino gehiago areagotu da, hala egile-kopurua, nola biktimena). Ondorioz, horrekin zerikusia duten organismoek jarraipen zehatza egin behar diete delitu horiei.

Alderdi positibo modura, azpimarratu behar da ezen, 2019ko datuekin alderatuta, murriztu egin direla ondarearen kontrako ia delitu guztiak – batik bat, etxeetako lapurretak (877 delitu gutxiago)– eta eten egin dela delitu informatikoen eskalada (2020an baino 810 ez-zilegitasun gutxiago).

Las conductas delictivas han ido adquiriendo inercias pasadas, aunque no todos los delitos se han comportado de la misma manera ante el levantamiento de las restricciones.

Si bien los datos de 2021 muestran un ascenso delictivo respecto al año anterior, dicha comparativa carece de coherencia debido al carácter excepcional del año 2020, con confinamiento de la población incluido. En dicho sentido, la comparativa respecto a 2019 sí ofrece una imagen más realista, la cual se podría tildar de positiva puesto que la Ertzaintza ha registrado casi 10000 hechos delictivos menos.

Pero si se profundiza un poco en cuáles han sido esas 10000 infracciones penales menos, se observa que los hurtos suponen más de 7000, que si bien es una tipología delictiva a perseguir, no tiene las consecuencias penales ni la trascendencia social de otros tipos penales como pueden ser las agresiones sexuales o los robos con violencia o intimidación, los cuales durante 2021 se han acercado a valores de 2019 incluso con las condiciones de pseudo-normalidad existentes durante el pasado ejercicio.

Especialmente significativo es el volumen de homicidios en grado de tentativa registrados en Gipuzkoa, lo cual es un reflejo de la presencia cada vez más cotidiana de las armas blancas en la vía pública.

Si bien en el dato global, las tipologías reseñadas no tienen una repercusión relevante, no hay que subestimar el impacto que generan en la percepción de seguridad de la ciudadanía.

El aumento de menores implicados en hechos delictivos (incremento de más del 25% tanto en autores como en víctimas) merece un seguimiento exhaustivo por parte de los diversos organismos implicados.

Como aspecto positivo, destacar la reducción de la práctica totalidad de delitos contra el patrimonio respecto a 2019 con especial mención a los robos en domicilio (877 delitos menos) y el freno en la escalada de los delitos informáticos (810 ilícitos menos que en 2020).

Hori guztia dela eta, eta ikusirik 2021eko azken hilabeteetako datuak hasi direla pandemia aurreko mailetara hurbiltzen, gerta liteke 2022ko delitu-jardueraren mailak berriro iristea 2019tik hurbil dauden mailetara; beti ere, baldintza sozio-sanitarioak larriagotzen ez badira.

Todo lo expuesto y la constatación de que los datos de los últimos meses del 2021 empiezan a acercarse a los niveles pre-pandemia, apunta a 2022 como el año en el que la actividad delictiva podría retomar niveles cercanos a los de 2019 siempre que las condiciones socio-sanitarias no se recrudezcan.

2021

Argitutako homizidioak / Homicidios resueltos	**100%**



ARAU-HAUSTE PENAL GUZTIEN BILAKAERA
EVOLUCIÓN DEL TOTAL DE INFRACCIONES PENALES



7.2 DELINKUENTZIAREN ETA SEGURTASUNIK EZAREN PERTZEPZIOA

2020. urtean, pandemiak eta haren ondorioek gizartean eragin zuten, maila guztietan: osasun-arazoak eta arazo sanitarioak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak. Herritarrei ezarritako murrizketek, gainera, zurrundu egin zituzten bizi-baldintzak, eta herritarrek, ezbairik gabe, nork bere perspektiba aldatu zuten.

Egoera horretan, negozioak itxi egin ziren, langabezia areagotu zen, senide eta lagun hurkoak gaixotu ziren, norbera ere bai, eta abar. Beraz, herritar arruntak arazo sozial larritzat jo zuen hori. Aipatutako murrizketek, bestalde, segurtasun-giro subjektiboa areagotu zuten; izan ere, bat-batean jaitsi zen EAEko delinkuentzia (% 20 gutxi gorabehera).

Egoera epidemiologiko orokorra, berriz, xamurragoa izan zen 2021ean 2020n baino. Murrizketak laxoagoak izan ziren, eta, momentuka, jendeari "ahaztu" zitzaion zer gertatu zen aurreko urtean. Hala ere, birulentzia handiko aldiak ere izan ziren, eta poliziaren eta gizartearen zati baten arteko konfrontazio latzak izan ziren, herritarrek ez baitzituzten onartu inposizio sanitario berriak edota murrizketak. Komunikabideetako izenburu nagusietan, manifestazioak, liskarrak, matxinadak eta gazteen arteko borrokak azaltzen ziren. Horrez gain, eta pandemia aurreko mailetara iritsi ez arren, EAEn, % 10 inguruko delitu-bilakaera bat ere izan zen, espero zen bezala.

7.2 PERCEPCIÓN DE LA DELINCUENCIA E INSEGURIDAD

El año 2020 estuvo influenciado socialmente, y a todos los niveles, por la pandemia y las consecuencias derivadas de la misma: problemas de salud, sanitarios, económicos, políticos y sociales. Las restricciones impuestas a la ciudadanía, además, endurecieron unas condiciones de vida que provocaron, sin duda, un cambio de perspectiva por parte de la población.

En esa tesitura, con cierres de negocios, incremento del paro, enfermedad de personas allegadas o propias, etc. el ciudadano de a pie valoró como grandes problemas sociales este tipo de hechos. Las citadas restricciones elevaron, además, un clima de seguridad subjetiva mayor dado el descenso abrupto de la delincuencia en la CAE (descenso de un 20% aproximadamente).

La situación epidemiológica en general en el año 2021 fue, sin embargo, más benévola que en 2020. Las restricciones fueron más laxas y, por momentos, la gente se "olvidó" de la situación vivida el año anterior. Sin embargo, hubo periodos de gran virulencia en las calles con duros enfrentamientos policiales con una parte de la sociedad que no aceptaba nuevas imposiciones sanitarias o de restricción. Manifestaciones, altercados, algaradas y peleas juveniles ocuparon grandes titulares en los medios de comunicación. Además, sin llegar a niveles pre pandémicos, se produjo una esperada evolución delictiva en la CAE del cerca del 10%.

Argi eta garbi dagoenez, inguruabar horiek pisua izan behar izan zuten; horrenbestez, herritarrek aldatu egin zuten segurtasun-pertzepzioa. Hori dela eta, aldatu egin zen herritar bakoitzaren arazoen ordena, eta hala azaldu zen Eusko Jaurlaritzako soziometroan.

Hiriburuak, hirigune handiak, oso erakargarriak dira delitugileek edozein motatako arau-hauste gauzatzeko. Euskal Poliziak 2019rako dituen datuek, pandemia aurrekoak eurak, erakusten dute hiru hiriburuek bereganatzen zutela EAEko arau-hauste guztien % 46, eta Bilbo nabarmentzen zela besteen gainetik (% 24). 2020an zehar, datu horiek egonkor mantendu ziren, eta Bilboko portzentajea arean jaitsi zen, % 22 arte. Argi dagoenez, hiri horietako bizilagunek duten segurtasun-pertzepzioa, oro har, txikiagoa da herrietako bizilagunek dutena baino. Batzuen eta besteen kezkak desberdinak dira, bien bizimoduak ere desberdinak baitira, eta biztanle gutxiko eremuetan gabezia batzuk izan ditzakete (sanitarioak, errepideak, lana, eta abar), biztanle askoko eremuetan ez daudenak.

Evidentemente, todas estas circunstancias debieron pesar y motivar en la ciudadanía un cambio en la percepción de seguridad que se tradujo en una alteración en el orden de los problemas de cada ciudadano y plasmado en el Sociómetro del Gobierno Vasco.

Las capitales, los grandes núcleos urbanos, son un gran atractivo para que el delincuente cometa cualquier tipo de infracción. Los datos de 2019, año prepandémico y correspondientes a la Policía Vasca, mostraban que las 3 capitales de la CAE acaparaban el 46% de todas las infracciones de la CAE, destacando, por encima del resto, Bilbao (el 24%). Estos datos se mantuvieron constantes en el año 2020, descendiendo ligeramente el porcentaje de Bilbao hasta el 22%. La percepción de seguridad de un ciudadano en una de estas urbes, evidentemente, es menor que la que puede tener los habitantes de los pueblos, de forma general. Las inquietudes de unos y otros son diferentes, dado el estilo de vida de ambos y las carencias (sanitarias, carreteras, trabajo, etc.) que pueden darse en zonas con poca densidad poblacional con respecto a las de densidad elevada.

HERRI ETA HIRIEN SEGURTASUNAREN PERTZEPZIOA*
PERCEPCIÓN DE LA SEGURIDAD EN PUEBLOS Y CIUDADES*



* Galdera honen erantzunak dira: **Zenbateraino zaude ados zure herri edo hiria bizitzeko leku segurua delako ideiarekin?**

73. Euskal Soziometroa, 2021eko maiatzekoa.

* Se responde a la pregunta **¿En qué medida está de acuerdo con que su pueblo o ciudad es un lugar seguro para vivir?**

Sociómetro Vasco nº 73 mayo 2021

7.3 HERRITARREK ERTZAINTZARI BURUZ EMAN DUTEN BALORAZIOA

Ertzaintzak ahaleginak egiten ditu herritarrek ezagutu dezaten goi-mailako erakunde modura. Horren ordain modura, hirugarrena da gehien baloratutako erakundeen rankinean; are gehiago, aurreko urtean baino nota hobea lortu du.

Ezbairik gabe, EAEko herritar arruntek oso kontuan hartzen dute zeinen gardenak eta efizienteak diren Ertzaintzako ekintzak, zein hurbila den eta zer errespetu erakusten giza eskubideekiko, zeinak aldarrikatzen baititu.

7.3 VALORACIÓN CIUDADANA SOBRE LA ERTZAINTZA

La búsqueda de la Ertzaintza como Institución de un alto nivel de reconocimiento por parte de la ciudadanía obtiene como recompensa ser la tercera en un ranking sobre las instituciones más y mejor valoradas incrementándose incluso la nota con respecto al año anterior.

Sin duda que la transparencia y eficiencia de sus acciones, la proximidad y el respeto a los derechos humanos que promulga son tenidos muy en cuenta por el ciudadano de a pie de la CAE.

CERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO KONFIANTZA*
CONFIANZA EN LAS ORGANIZACIONES / INSTITUCIONES*



* **Iturria:** Deustobarometro Soziala, 2021eko negukoa. Galdera honi erantzun diote: **Zenbaterainoko konfiantza duzu ondorengo erakunde eta instituzioetan?**

* **Fuente:** Deustobarómetro Social invierno 2021. Se responde a la pregunta: **¿En qué medida confías en cada una de las siguientes organizaciones o instituciones?**

PROTECCIÓN CIVIL
S.O.S KARRANTZA
PROTECCI
S.O.S KAR

02.

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIA

ATENCIÓN DE EMERGENCIAS Y METEOROLOGÍA

› Aurkibidea

1. SOS DEIAK - EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA
2. ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK
3. BABES ZIBILEKO JARDUKETAK ETA GERTAKARIAK
4. ARAUGINTZA-JARDUERAK
5. PLANAK
6. BATZORDEAK, HITZARMENAK ETA PROTOKOLOAK
7. SIMULAKROAK ETA JARDUKETAK
8. ZABALKUNDEA
9. PRESTAKUNTZARAKO LANKIDETZA
10. EKITALDI INSTITUZIONALAK
11. JARDUNALDIAK ETA TOPAKETAK
12. BOLUNTARIOAK
13. PROIEKTU EUROPARRAK

› Índice

1. CENTRO DE COORDINACIÓN DE EMERGENCIAS DE EUSKADI SOS DEIAK
2. AVISOS, ALERTAS Y ALARMAS METEOROLÓGICAS
3. ACTUACIONES Y EPISODIOS DE PROTECCIÓN CIVIL
4. ACTIVIDADES NORMATIVAS
5. PLANES
6. COMISIONES, CONVENIOS Y PROTOCOLOS
7. SIMULACROS Y EJERCICIOS
8. DIVULGACIÓN
9. COLABORACIÓN EN FORMACIÓN
10. ACTOS INSTITUCIONALES
11. JORNADAS Y ENCUENTROS
12. VOLUNTARIADO
13. PROYECTOS EUROPEOS

1. SOS DEIAK EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA

SOS Deiakek, Euskadiko larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, 2021. urtean 112 telefonoaren bitartez **719.029 dei** jaso eta **218.003 gertakari** kudeatu zituen.

Kudeatutako gertakari gehienak honela bana daitezke: larrialdi medikoak (%22,76), bide publikoan arriskuak antzematea (% 18,29), herritarren segurtasuna (%16,25) pertsonen istripuak (%13,43), eta trafiko-istripuak (%8,95).

Hartutako deietatik 383.518 Bizkaian izan ziren, 224.586 Gipuzkoan eta 110.925 Araban.

Era berean, SOS Deiak App-a aldi horretan 55.183 aldiz deskargatu zen eta, horren bidez, 540 gertakari kudeatu ziren; eCall sistemak 810 larrialdi-dei sortu zituen eta horietako 85 izan ziren gertakari errealengatik.

1. CENTRO DE COORDINACIÓN DE EMERGENCIAS DE EUSKADI SOS DEIAK

El Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, SOS Deiak, atendió en el 2021, a través del teléfono 112, **719.029 llamadas** y gestionó **218.003 incidentes**.

La mayor parte de los incidentes gestionados estuvieron relacionados con las urgencias médicas (22,76%), la detección de peligros en la vía pública (18,29%), la seguridad ciudadana (16,25%), los accidentes de personas (13,43%) y los accidentes de tráfico (8,95%).

En cuanto a las llamadas atendidas, en Bizkaia se produjeron 383.518, en Gipuzkoa 224.586 y en Araba 110.925.

A su vez, la APP de SOS Deiak registró durante el mismo periodo 55.183 descargas acumuladas que se plasmaron en 540 incidentes gestionados, mientras que el sistema eCall generó 810 llamadas de emergencia de las cuales 85 obedecieron a incidentes reales.

2021EAN ERANTZUNDAKO DEIAK
(lurraldeak)

LLAMADAS ATENDIDAS EN 2021
(por territorio)



2021EAN KUDEATUTAKO GERTAKARIAK
(lurraldeak)

INCIDENTES GESTIONADOS EN 2021
(por territorio)



1.1 AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARREAN

Azaroaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako zuzendariak, Fernando Izaguirrek, SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren arduraduna den José Ignacio Tranchorekin batera, Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin zuen, Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemaren funtzionamendua azaltzeko eta, bide batez, etorkizuneko proiektuak ezagutarazteko.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu horrekin lotutako dibulgaziozko argitalpen baten eguneratzea aurkeztu zuen.

1.1 COMPARECENCIA EN EL PARLAMENTO VASCO

El 15 de noviembre, el Director de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco, Fernando Izaguirre, acompañado por José Ignacio Trancho, responsable del Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, SOS Deiak, compareció en el Parlamento Vasco para explicar el funcionamiento del Servicio Vasco de Atención de Emergencias y dar a conocer, al mismo tiempo, los proyectos de futuro.

De forma paralela, el Gobierno Vasco presentó la actualización de una publicación divulgativa relacionada con dicho servicio.

1.2 BETION: SOS DEIAK-I AITORTZA

Abenduaren 11n, betiON telelaguntzako zerbitzu publikoak hamar urte bete zituen eta urteurren hori ospatzeko bere entitate laguntzaile batzuei aitortza egin zien, besteak beste, SOS Deiak-i.

1.2 BETION: RECONOCIMIENTO A SOS DEIAK

El 11 de diciembre, el servicio público de teleasistencia betiON celebró su décimo aniversario reconociendo la labor de las diversas entidades colaboradoras del mismo entre las que se encuentra SOS Deiak.

2. ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK

Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarako (LAEMZ) abisuen, alerten eta alarmen sistema funtsezko tresna bat da, muturreko fenomeno meteorologikoen mehatxuak eta horiek eragin ditzaketen kalte material eta pertsonalak gutxitu ahal izateko.

2. AVISOS, ALERTAS Y ALARMAS METEOROLÓGICAS

Para la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (DAEM) el sistema de avisos, alertas y alarmas es una herramienta fundamental a la hora de minimizar las amenazas y los posibles daños personales y materiales derivados de la meteorología adversa.

METEORO ABISUAK 2021 / AVISOS POR METEORO 2021

ALDAGAI METEOROLOGIKOAK VARIABLES METEOROLÓGICAS	Abisu horiak Avisos amarillos	Alerta laranjak Alertas naranjas	Alarma gorriak Alarmas rojas	GUZTIRA TOTAL
PREZIPITAZIOA / PRECIPITACIONES				
Iraunkorra / Persistentes	14	5		**19**
Handia / Intensas	26	1		**27**
ELURTEAK / NEVADAS	**21**	**4**		**25**
HAIZEA / VIENTO				
Haizeguneak / Zonas expuestas	21			**21**
Haizeguneak ez diren lekuak / Zonas no expuestas	11			**11**
ITSASOA ETA KOSTALDEA / MAR/COSTA				
Olatuen altuera nabigaziorako / Altura de ola-navegación	22	5	1	**28**
Enbatak / Galernas	5			**5**
Kostaldean inpaktua / Impacto en costa	19	2		**21**
TENPERATURA / TEMPERATURAS				
Izotza / Heladas	17	1		**18**
Altua eta iraunkorra / Altas persistentes	2			**2**
Oso altua / Altas extremas	5			**5**
BASO-SUTEAK / INCENDIOS FORESTALES	**13**			**13**
GUZTIRA / TOTAL	**176**	**18**	**1**	**195**

2021. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzak guztira 176 abisu hori aktibatu zituen, 18 alerta laranja eta alarma gorri bat. Nabarmendu behar da egun berean abisu hori bat baino gehiago elkar daitezkeela eta alerta laranja bat baino gehiago ere bai, fenomeno desberdinekin lotuta.

A lo largo del 2021, el Gobierno Vasco activó un total de 176 avisos amarillos, 18 alertas naranjas y 1 alarma roja. Es importante señalar que en una misma jornada pueden concurrir varios avisos amarillos e incluso varias alertas naranjas relacionadas con distintos fenómenos.

ABISUAK NAHIERAN

2021. urtean, Abisuak nahieran zerbitzua 3.270 erabiltzaile izatera heldu zen.

AVISOS A LA CARTA

En el año 2021, el servicio Avisos a la carta alcanzó la cifra de 3.270 personas usuarias.



2.1 GERTAKARI METEOROLOGIKO AIPAGARRIAK

EAEn, 2021ean zehar, muturreko zenbait meteorologia-gertakari erregistratu dira. Hona hemen aipagarrienak:

- Urtarrilaren 30ean, "Justine" izeneko depresioa Bizkaiko golkoaren iparraldetik igaro zen eta haize- eta itsaso-denborale handia eragin zuen. Haize-boladen abiadura Matxitxakon 140km/h-tik gorakoa izan zen eta olatuak ere altuak izan ziren; izan ere, urtarrilaren 30aren azken orduetan 9 metrotik gorakoak izan ziren eta 31ren hasierako orduetan 11 metro ingurukoak izatera heldu ziren. Gertakari hori otsailaren 2ra arte luzatu zen eta itsasgoren inguruan gainezkatzeak gertatu ziren.

- Ekainaren 17tik 19ra bitartean, depresio askatu baten ondorioz ekaitz gogorrak gertatu ziren eta horrekin lotutako datu aipagarri gisa, hauek: 30,1 l/m^2 San Prudentzioko estazioan, 26,8 l/m^2 Urkiolan eta 25,8 l/m^2 Abetxukon. Gertakari horretan, eta ekaineko beste egun batzuetan ere, 10 minutuan izandako prezipitazioen markak hautsi ziren eta ordu batean izandako prezipitazioenak ere bai, ekain baterako zein urte oso baterako. Horrez gain, estazio askotan, ekaineko prezipitazioen guztizko balioak XXI. mendeko altuenak izan ziren.

2.1 EPISODIOS METEOROLÓGICOS RESEÑABLES

Varios han sido los episodios de meteorología adversa registrados en Euskadi a lo largo del 2021. Los más destacados fueron los siguientes:

- El día 30 de enero, una borrasca bautizada como "Justine" recorrió el norte del golfo de Bizkaia generando un importante temporal de viento y mar. Las rachas superaron los 140 km/h en Matxitxako y las olas, que a últimas horas del día 30 superaban los 9 metros, llegaron a rondar los 11 metros a primeras horas del 31. Durante este episodio, que se alargó hasta el 2 de febrero, se produjeron rebases en torno a las pleamares.

- Entre el 17 y el 19 de junio, la presencia de una DANA generó tormentas fuertes, destacando los registros horarios de 30,1 l/m² en la estación de San Prudencio, 26,8 l/m² en Urkiola y 25,8 l/m² en Abetxuko. Durante este episodio, y también a lo largo de otras jornadas de junio, se batieron récords de precipitación en 10 minutos y en una hora, tanto para un mes de junio como para todo un año. Asimismo, en numerosas estaciones, los valores de precipitación total de junio fueron los más altos del siglo XXI.

Imanol Gagoren (EuskalEguraldia) argazkia / Fotografía de Imanol Gago (EuskalEguraldia)

- Azaroko azken egunetan ere prezipitazioa oso ugaria eta iraunkorra izan zen eta horren barruan aipatu behar da 27tik 29ra bitartean elur kota 500 metrora jaitsi zela. Hiru egun horietan metatuak 200 l/m²-tik gorakoak izan ziren Kantauri isurialdeko zenbait puntutan eta metatu horiek, elurraren urtzearekin batera, Euskadiko arroetan goraldi nabarmenak eragin zituzten. Hileko zein eguneko prezipitazio-kopuruek estazio askotan marka berriak lortu zituzten.

- Abenduaren 7tik 10era bitartean, ziklogenesi leherkor baten ondorioz sortutako "Barra" izeneko depresioak Euskadin haize gogorra, olatu handiak, elurra kota ertainetan eta prezipitazio ugari eragin zituen; eta horren ondorio nagusia izan zen arro askotan uholde handiak gertatu zirela. Gertakari horretan mende honetako hileko metatuen marka, egunekoena eta ordukoena ere apurtu ziren; izan ere, metatuak 24 orduan 100 l/m2-tik gorakoak izen ziren eta Eskas estazioan 160 l/m2-koak izatera heldu ziren.

- Durante los últimos días de noviembre se produjeron precipitaciones muy abundantes y persistentes, destacando el episodio que discurrió del 27 al 29 en el que la cota de nieve descendió hasta los 500 metros. Los acumulados, que en esas tres jornadas superaron los 200 l/m² en puntos de la vertiente cantábrica, sumados al deshielo, provocaron crecidas importantes en buena parte de las cuencas de Euskadi. Los valores de precipitación, tanto mensual como diaria, alcanzaron nuevos récords en numerosas estaciones.

- Entre los días 7 y 10 de diciembre, la borrasca bautizada como "Barra", fruto de una ciclogénesis explosiva, generó en el País Vasco un episodio de fuertes vientos, gran oleaje, nieve en cotas medias y precipitaciones muy abundantes que tuvo como principal consecuencia el desencadenamiento de inundaciones importantes en buena parte de las cuencas. Con acumulados que superaron los 100 l/m² en 24 horas, llegando a los 160 l/m² en la estación de Eskas, a lo largo de este episodio se batieron nuevos récords de acumulados mensuales, diarios e incluso horarios del presente siglo.

ABENDUKO EFEMERIDEEN TAULA / TABLA DE EFEMÉRIDES DICIEMBRE

ESTAZIOA / ESTACIÓN	T. maximoa efemeride berria T. máxima efeméride nueva	Aurreko efemeride absolutua Efeméride absoluta anterior	
	T (°C)	T (°C)	Data / Fecha
Arboleda	22,3	21,2	25/12/2019
Roitegi	18,8	17,7	25/12/2019
Saratxo	22,6	21,7	23/12/2012
Gardea	23,5	22,5	07/12/2000
Arrasate	21,5	20,5	04/12/2006
Salvatierra	20,5	19	23/12/2012
Zizurkil	24	22,5	19/12/2015
Arteaga	25,8	24,3	19/12/2015
Etura	19,9	17,1	05/12/2018
Galdakao	24,1	22,3	21/12/2019

Abenduaren amaieran, antizikloi sendo bat eta tenperatura-anomalia positibo bat gertatu ziren. Horren ondorioz, termometroen balioek markak hautsi zituzten, XXI. mendeko abenduetako tenperatura maximo altuenak eta minimo altuenak izan baitziren. Bilbo Handiko erreferentziazko estazio historikoetan ere beren serieetako muturreko balio absolutua lortu zen.

Horiek horrela, 31n, Arteagako estazioan balio maximoa 25,8ºC-koa izan zen eta, gau horretan bertan, Kantauri isurialdeko estazio batzuetan tenperatura minimoak ez ziren 20ºC-tik jaitsi.

El mes de diciembre finalizó con un potente anticiclón y una anomalía positiva de temperatura que hizo que los termómetros alcanzaran valores de récord, tanto en las máximas más altas como en las mínimas más altas para un mes de diciembre del siglo XXI. Incluso en estaciones históricas de referencia del Gran Bilbao se trataría del valor extremo absoluto de sus series.

Así, el día 31 se alcanzó en la estación de Arteaga un valor máximo de 25,8°C mientras que esa misma noche, en algunas estaciones de la vertiente cantábrica, las temperaturas mínimas no descendieron de los 20°C.

2.2 EKIMENAK ETA JARDUERAK

Martxoaren 23an, Meteorologiaren Munduko Eguna zela eta, Euskalmet - Euskal Meteorologia Agentziak modu ofizialean aurkeztu zuen bere web-orri berria (www.euskalmet.euskadi.eus), datu irekietan oinarritutakoa, Eusko Jaurlaritzak gardentasunarekin daukan konpromisoaren esparruan. Martxan jarri aurretik, erabiltzaileek beraiek testatu zuten modu publikoan.

Uztailaren 26an, Eusko Jaurlaritzak estazio ozeano-meteorologiko berri bat martxan jarri zuen. Estazio hori Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) Mutrikuko portuaren kanpoko kai-muturrean daukan eta BIMEPek (Biscay Marine Energy Platform) kudeatzen duen olatu-energiaren zentralean dago.

Ekipamendu berri hori lortu zen hainbat organismo eta erakunderen laguntzari esker, besteak beste, hauek: Eusko Jaurlaritza bera, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mutrikuko Udala eta itsas ingurunean eta elikaduran espezializatuta dagoen AZTI zentro teknologikoa. Ekipamendu horrek Euskalmeti datu garrantzitsuak ematen dizkio kostaldeko eremu zabal bateko olatuei buruz, itsasoko tenperaturari buruz eta enbaten mugitzeko abiadurari zein intentsitateari buruz ere.

2.2 INICIATIVAS Y ACTUACIONES

El 23 de marzo, coincidiendo con la conmemoración del Día Meteorológico Mundial, la Agencia Vasca de Meteorología, Euskalmet, presentó oficialmente su nueva página web (www.euskalmet.euskadi.eus) basada en datos abiertos en el marco del compromiso del Gobierno Vasco con la transparencia. Antes de ponerla en marcha fue testada de forma pública por las propias personas usuarias.

El 26 de julio, el Gobierno Vasco puso en marcha una nueva estación océano-meteorológica situada en la central undimotriz que el Ente Vasco de la Energía (EVE) posee en el dique exterior del puerto de Mutriku bajo la gestión de BIMEP (Biscay Marine Energy Platform).

El nuevo equipamiento, que fue posible gracias a la colaboración de diversos organismos e instituciones como el propio Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Mutriku y el centro tecnológico especializado en ciencia marina y alimentaria, AZTI, suministra datos de gran interés para Euskalmet acerca del oleaje correspondiente a una amplia franja costera, de la temperatura del mar e incluso de la intensidad y la velocidad del desplazamiento de las galernas.

Abenduaren 27an martxan jarri zen Zorrozaurren Zorrotzako estazio meteorologiko berria eta itsasoko ur-laminaren mailei buruzkoa, Deustu izeneko estazioa ordezkatzeko, azken hori hirigintza arloko beharrengatik deuseztatu behar izan zen eta.

Horrekin lotuta, aipatu behar da 2021ean zehar Euskadiko sare hidro-meteorologikoaren barruan 10 estazio sartu direla edo guztiz moldatu direla eta 3 disdrometro berri instalatu direla.

Irailaren 29an, Euskalmet-Euskal Meteorologia Agentziak @Euskalmet bere twitter kontuan ikus-entzunezko produktu berri bat sartu zuen, EAE osorako eguneko iragarpena eta hurrengo egunerako aurreikuspena emateko. Produktu horren oinarrian bi audio daude, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz eta, gainera, uneko egoera meteorologikoa azaltzeko mapak eta grafikoak ere agertzen dira.

Beste gai batera pasatuta, esan behar da abenduaren 20an Gobernu Kontseiluari jakinarazi zitzaiola Eusko Jaurlaritzak eta EuskalEguraldia Informazio Meteorologikoaren Elkarteak berehala sinatuko zutela lankidetza-hitzarmen bat; izan ere, elkarte horren espezialitatea da Euskalmeti sare sozialen bidez egoera meteorologiko ohiko zein kaltegarriei buruzko informazioa ematea, baita egoera horiekin lotuta ager litezkeen arazo eta arriskuei buruzkoa ere.

El 27 de diciembre entró en funcionamiento la nueva estación meteorológica y de niveles de la lámina del mar de Zorrotza, situada en Zorrozaurre, en sustitución de la estación denominada Deusto desmantelada por necesidades de carácter urbanístico.

En este sentido cabe señalar que a lo largo del 2021 se han incorporado, o modificado totalmente en la Red Hidro-Meteorológica del País Vasco, 10 estaciones y se han instalado 3 nuevos disdrómetros.

El 29 de septiembre, la Agencia Vasca de Meteorología, Euskalmet, incorporó a su cuenta Twitter, @Euskalmet, un nuevo producto audiovisual centrado en el pronóstico diario para toda la CAE y la previsión para la jornada siguiente, basado en un audio en euskera y castellano que incluye, además, mapas y gráficos explicativos acordes a la situación meteorológica del momento.

En otro orden de cosas, el 28 de diciembre el Consejo de Gobierno fue informado acerca de la inminente suscripción de un convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y la Asociación de Información Meteorológica EuskalEguraldia, especializada en proporcionar a Euskalmet información a través de las redes sociales de situaciones meteorológicas, tanto habituales como adversas, así como de los riesgos y problemáticas que podrían ir asociadas a las mismas.

3. BABES ZIBILEKO JARDUKETAK ETA GERTAKARIAK

3.1 BILAKETAREN AMAIERA ZALDIBARKO ZABORTEGIAN

Maiatzaren 14an, Eusko Jaurlaritzak modu ofizialean iragarri zuen Joaquin Beltrán Zaldibarko zabortegian bilatzeari utziko zitzaiola, beti ere Lehendakariak langile horren familia osoari hartutako erabakia pertsonalki jakinarazi ondoren.

Zabortegia 2020ko otsailaren 6an eraitsi zen eta ordutik bilaketa-operatiboak behin ere zion utzi lurperatutako langileen gorpuzkiak bilatzeari. Alberto Sololuzeren gorpuzkiak abuztuaren 16an agertu ziren (DNA proben bidez egiaztatu zen bera zela, 3 egun geroago), baina, zoritxarrez, Joaquín Beltránenak ezin izan zituzten aurkitu.

3. ACTUACIONES Y EPISODIOS DE PROTECCIÓN CIVIL

3.1 FIN DE BÚSQUEDA EN EL VERTEDERO DE ZALDIBAR

El 14 de mayo, el Gobierno Vasco anunció, oficialmente, la finalización de la búsqueda de Joaquín Beltrán en el vertedero de Zaldibar después de que el Lehendakari comunicara personalmente la decisión adoptada al conjunto de su familia.

Desde que el vertedero se derrumbó el 6 de febrero del 2020, el operativo de búsqueda no cejó en ningún momento en el empeño de encontrar los restos de los trabajadores sepultados. Y si bien los restos de Alberto Sololuze fueron hallados el 16 de agosto (las pruebas de ADN confirmaron su identidad 3 días más tarde), desgraciadamente los de Joaquín Beltrán no pudieron ser localizados.

Operatiboko teknikariek orduan esan zuten, desagertutako langilea eraisketa nagusiaren ardatz zentralean zegoela kontuan hartuta, agian eraisketa horren energia mekanikoak zein zabortegiaren prozesu kimikoek beraiek eragin zutela gorpuzkiak identifikatu ezin izatea.

Operatibo horretan egunero profesional askok lan egin zuten, 80 eta 100 bitartean, LAEMZekoek zein Ertzaintzaren eta polizia zientifikoaren unitate espezializatutakoek ere, esaterako, ertzainor unitateak, Brigada Mugikorrak, droneen kontroladoreek, etab.

Guztira, 450.000 m3 inguru zehatz-mehatz induskatu eta arrastelatu ziren, Joaquín Beltrán egondako lekuaren azpiko kotako bilaketa-eremu guztietan, eraisketaren aurreko bere azken kokapenari buruzko erreferentzia kontuan hartuta.

3.2 BESTE JARDUKETA ETA GERTAKARI AIPAGARRI BATZUK

2021ean zehar LAEMZek kausa desberdinek eragindako gertakari garrantzitsu batzuetan esku hartu zuen. Aipagarrienak hauek izan ziren:

- Urtarrilaren 2tik 5era bitartean, larrialdietako zerbitzuek, meteorologia kaltegarria zegoela, Gorbeian galdutako 6 mendizale erreskatatu zituzten.
- Otsailaren 20an, Nafarroako Bera eta Lesaka herrietan baso-sute bat egon zen. Haizearen eraginez, Irunera ere heldu zen eta, horren ondorioz, Bidasoa eta Behobia auzoetako 40 baserri hustu behar izan zituzten. Baso-suteak Frantzia aldeko Biriatun ere eragina izan zuen.
- Baso-sutea zela eta, mobilizatutako 2 esku-hartzeko teknikarirekin Aginte Postu Aurreratua (APA) eratu zen eta Euskadiko Baso-suteetarako Plana aktibatu zen, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Larrialdietako Foru Plana ere.
- Egun batzuk geroago, otsailaren 26an, Azpeitian, berniz eta pinturetako enpresa bateko pabilioi batek su hartu zuen eta hurbileko bi baserritan bizi ziren 8 pertsona aterarazi behar izan ziren.

Los técnicos y técnicas del operativo sostuvieron entonces que la energía mecánica del desprendimiento principal, en cuyo eje central se encontraba el trabajador desaparecido, así como la propia acción de los procesos químicos del vertedero, pudieron imposibilitar la identificación de cualquier resto.

En dicho operativo trabajaron a diario entre 80 y 100 profesionales procedentes tanto de la DAEM como de las diferentes unidades especializadas de la Ertzaintza y la policía científica, equipo de búsqueda de caninos, Brigada Móvil, controladores de drones, etc.

En total se excavaron y rastrillaron, de forma pormenorizada, un volumen aproximado de 450.000 m3 correspondientes a todas las zonas de búsqueda a cota inferior del lugar en el que se hallaba Joaquín Beltrán, según la referencia de su última ubicación previa al desprendimiento.

3.2 OTRAS ACTUACIONES Y EPISODIOS RELEVANTES

Durante el año 2021, la DAEM intervino en diversos incidentes de entidad relacionados con diferentes casuísticas, siendo los más relevantes los siguientes:

- A lo largo de los días 2 y 5 de enero, los servicios de emergencias rescataron, en condiciones meteorológicas adversas, a 6 montañeros extraviados en el Gorbea.
- El 20 de febrero, un incendio forestal declarado en las localidades navarras de Bera y Lesaka, avivado por el fuerte viento, afectó a Irun provocando el desalojo de 40 caseríos ubicados en los barrios de Bidasoa y Behobia. El incendio también afectó a la zona francesa de Biriatu.

  En el transcurso del mismo se conformó el Puesto de Mando Avanzado (PMA) con 2 técnicos de Intervención movilizados y se activó el Plan de Incendios Forestales de Euskadi, así como el Plan Foral de Emergencias de la Diputación de Gipuzkoa.
- Unos días más tarde, el 26 de febrero, ardió uno de los pabellones de una empresa de barnices

- Martxoaren 3an, Oiartzungo poliespan-enpresa bateko biltegi batean sute bat gertatu zen eta suteak sei ibilgailuri eta ondoko pabilioi bati eragin zien. Material plastiko apardun horren hondakinak hainbat kilometrotara ere zabaldu ziren.

- Apirilaren 19an, Barakaldoko okindegi bateko labe batean sute bat gertatu zen eta, horri aurre egiteko, suhiltzaileen 10 dotazio bertaratu behar izan ziren eta hurbileko ikastola bateko ikasleak konfinatu behar izan zituzten.

- Aste batzuk geroago, maiatzaren 22an, larrialdietako zerbitzuek, Irunen, Frantziako muga igaro nahi zuen migratzaile baten gorpua Bidasoako uretatik atera zuten. Abuztuaren 8an ere antzeko zerbait gertatu zen, egun horretan ere beste migratzaile bat hil baitzen, leku eta egoera berean.

- Maiatzaren 31n, Markinan, desagertutako 82 urteko gizon baten bilaketa hasi zen. Bilaketa-lanetan esku-hartzeko 2 teknikari ibili ziren eta 3 egun bilatzen eman ondoren, larrialdietako zerbitzuek galdutako pertsona bizirik aurkitu zuten.

y pintura radicada en Azpeitia, siendo desalojadas 8 personas residentes en 2 caseríos cercanos.

- El 3 de marzo se produjo un incendio en un almacén de una empresa de poliespán de Oiartzun afectando, además, a una docena de vehículos y a un pabellón anexo. Restos de este material plástico espumado se expandieron a varios kilómetros.

- El 19 de abril se produjo un incendio en uno de los hornos de una panificadora de Barakaldo que requirió el concurso de 10 dotaciones de bomberos y el confinamiento de los alumnos y alumnas de una ikastola cercana.

- Semanas después, el 22 de mayo, los servicios de emergencias rescataron de aguas del Bidasoa, en Irun, el cuerpo sin vida de un migrante que pretendía cruzar la frontera a Francia. Otro suceso de idénticas características se repitió el 8 de agosto, jornada en la que otro migrante perdió la vida en el mismo escenario y en las mismas circunstancias.

- El 31 de Mayo se inició en Markina la búsqueda de un varón desaparecido de 82 años de edad. Después de 3 días de búsqueda, en la que estu-

- Ekainaren 13an, larrialdietako zerbitzuek Gorbeiako eremu harritsu batean aita bat eta bere 3 urteko semea erreskatatu zituzten.

- Hurrengo egunean, ekainaren 14an, Txindoki mendian mendizale baten gorpua erreskatatu zuten, mendizale hori "running egiten zebilela amildegira erori baitzen.

- Uztailaren 6an, larrialdietako zerbitzuek, Santa Katalinako itsasargitik hurbil, Lekeitioko uretatik urpekari baten gorpua erreskatatu zuten, bi egun lehenago urpekaritza egiten zebilela desagertu baitzen.

- Uztailaren 28an, larrialdietako zerbitzuek Ebro ibaian, Gatzaga Buradonen inguruan, bost egun lehenago Bastidan desagertutako gizon baten gorpua aurkitu zuten.

- Bi egun geroago, uztailaren 30ean, larrialdietako zerbitzuek Donostiako Zurriola hondartzako uretatik gazte irlandar baten gorpua erreskatatu zuten.

- Abuztuaren 3an, Trapagarango El Juncal poligonoan, makineria alokatzeko enpresa baten industria nabe batean sortutako sute baten on-

vieron involucrados 2 técnicos de Intervención, los servicios de emergencias localizaron con vida a la persona extraviada.

- El 13 de junio, los servicios de emergencias rescataron en una zona rocosa del Gorbea a un padre y a su hijo de 3 años de edad.

- Al día siguiente, el 14 de junio, fue rescatado en el monte Txindoki el cadáver de un montañero que se precipitó al vacío mientras practicaba "running".

- El 6 de julio, los servicios de emergencias rescataron de las aguas de Lekeitio, en las proximidades del faro de Santa Catalina, el cuerpo sin vida de un buzo que había desaparecido dos días antes cuando practicaba submarinismo.

- El 28 de julio, los servicios de emergencias rescataron en el río Ebro, en la zona de Salinillas de Buradón, el cuerpo sin vida de un varón desaparecido en Labastida cinco días antes.

- Dos jornadas después, el 30 de julio, los servicios de emergencias rescataron en aguas de la playa donostiarra de la Zurriola, el cuerpo sin vida de un joven de nacionalidad irlandesa.

dorioz, enpresako langileak aterarazi behar izan zituzten, baita ondoko enpresetako operarioak ere.

- Irailaren 20an, onik aurkitu zuten 6 egun lehenago Gipuzkoako Berrobi udalerritik desagertutako gaztea.

- Urriaren 18an, Arabako Langraitz Okako Subillabide industrialdeko pabilioi batean sute bat gertatu zen, baina ez zuen kalte pertsonalik eragin.

- Urriaren 19an, Guggenheim museoan gertakari erradiologikoa, biologikoa edota kimikoa (RBQ) gertatu zen eta, horren ondorioz, museoa hustu behar izan zen. Intzidente hori gertatu zen barruan identifikatu gabeko substantzia kimiko bat izan zezakeen pakete bat jasotzearen ondorioz. Larrialdietako baliabideak mobilizatu ziren, besteak beste, esku-hartzeko teknikari bat, baina azkenean ziurtatu zen paketeak ez zeukala substantzia toxikorik.

- Azaroaren 27an, euri jarraituen aurreikuspena eta ibaien egoera direla eta, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Uholde Arriskuari Aurre egiteko Larrialdietako Plan Berezia alerta fasean zegoela jakinarazi zuen. Alerta fase horrek ekarri zuen, besteak beste, egoeraren etengabeko jarraipena egitea.

- Egun bat geroago, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen Uholdeen Arriskuari Aurre egiteko Plan Bereziaren emergentzia fasea 1 egoeran aktibatuta zegoela eta, aldi berean, Aholku Batzordea (krisi-mahaia) deitu zuen. Hortik aurrera, plan horrek egin behar izan zituen koordinazio- eta esku hartze-lanak, eragindako gainerako planak (presetakoak, tokikoak edo foru planak) horren menpe geratu baitziren.

- Azaroaren 29an, Lehendakaria Euskadiko Trafikoa Kontrolatzeko eta Larrialdiak Kudeatzeko Zentrora joan zen, han elkartu baitzen Uholde Arriskuari Aurre egiteko Plan Bereziaren krisi-mahaia, ibaietako arroen bilakaeraren eta meteorologia-aurreikuspenen jarraipena egiteko eta Euskadiko uholde arriskua aztertzeko. Egun horretan bertan, Eusko Jaurlaritzak plana desaktibatu zuen, prezipitazioen beherakada

- El 3 de agosto, un incendio declarado en una nave industrial perteneciente a una empresa de alquiler de maquinaria sita en el polígono El Juncal de Trapagaran obligó a desalojar a los y las trabajadoras de la misma y a los operarios y operarias pertenecientes a empresas colindantes.

- El 20 de septiembre fue localizado en buen estado un joven desaparecido 6 días antes en el municipio guipuzcoano de Berrobi.

- El 18 de octubre se produjo un incendio en un pabellón del polígono industrial de Subillabide, en el municipio alavés de Iruña de Oca, sin que se produjeran daños personales.

- El 19 de octubre tuvo lugar un Incidente Radiológico, Biológico y/o Químico (RBQ) en el Museo Guggenheim, suceso que provocó el desalojo del mismo. El incidente se produjo como consecuencia de la recepción de un paquete susceptible de contener en su interior una posible sustancia química sin identificar. Movilizados los recursos de emergencias, entre los que se encontraba una técnica de Intervención, se comprobó finalmente que el paquete no albergaba ninguna sustancia tóxica.

- El 27 de noviembre, el Gobierno Vasco comunicó la Fase de alerta del Plan Especial de Emergencias ante el Riesgo de Inundaciones de Euskadi dada la situación de los ríos y las previsiones de lluvias persistentes. Dicha fase de alerta implicó, entre otras acciones, el seguimiento permanente de la situación.

  Un día más tarde, el Gobierno comunicó dicha Fase en situación 1 al tiempo que convocó a su Consejo Asesor (Mesa de Crisis). A partir de entonces, el citado Plan fue el encargado de realizar funciones de coordinación e intervención, quedando supeditados al mismo el resto de los planes locales, forales o de presas afectados.

- El 29 de noviembre, el Lehendakari acudió al Centro de Control de Tráfico y Gestión de Emergencias de Euskadi donde se reunió la Mesa de Crisis del Plan al objeto de seguir la evolución del estado de las cuencas de los ríos, las previsiones meteorológicas y analizar el riesgo de inunda-

orokorraren ondorioz ibai arroetako mailak nabarmen jaitsi zirelako.

- Egun batzuk geroago, abenduaren 8an, Eusko Jaurlaritzak berriz ere jakinarazi zuen Euskadiko Uholde Arriskuari Aurre egiteko Larrialdi Plan Berezia alerta fasean zegoela, lehenagoko kausa berdinengatik eta, 24 ordu geroago, Uholde Arriskuari Aurre egiteko Plan Bereziaren larrialdi fasea 2 egoeran aktibatu zuen eta berriro ere Aholku Batzordea deitu zuen.

- Abenduaren 11n, Jaurlaritzak erabaki zuen plana "larrialdi fasetik" "alerta fasera" pasatzea, baina plan horrek Araban aktibo jarraitu zuen. Hobekuntza nabarmenak eta egoera meteorologikoaren aldaketak eragin zuten erabaki hori hartzea. Era berean, Arabako eremuan, Zadorrako urtegi-sistema zorrotz zaintzen jarraitzea erabaki zen, une horretan sistema horrexek baitzeukan egoera txarrena eta irekitako intzidentzia kopuru handiena.

- Azkenik, abenduaren 12an, Eusko Jaurlaritzak Uholde Arriskuari Aurre egiteko Larrialdi Plan Berezia desaktibatu zuen Araban; izan ere, Zaciones en Euskadi. Esa misma jornada, el Gobierno Vasco desactivó dicho Plan debido a la bajada considerable de los niveles de los ríos en las distintas cuencas como consecuencia de la disminución generalizada de las precipitaciones.

- Días después, el 8 de diciembre, el Gobierno Vasco volvió a comunicar la fase de alerta del Plan Especial de Emergencias ante el Riesgo de Inundaciones de Euskadi por las mismas causas y 24 horas más tarde activó la situación 2 de la Fase de emergencia volviendo a convocar de nuevo a su Consejo Asesor.

- El 11 de diciembre, el Gobierno decidió rebajar el Plan de "fase de emergencia" a "fase de alerta", si bien dicho Plan continuó activo en Álava. Esta decisión estuvo motivada por la clara mejoría observada y el cambio de la situación meteorológica. De igual modo, se acordó mantener una vigilancia exhaustiva del sistema de embalses del Zadorra, zona alavesa, ya que en esos momentos se encontraba en peor situación y con un mayor número de incidencias abiertas.

dorrako sistemaren bilakaera onaren eta prezipitazioen beherakada orokorraren ondorioz, arroetako mailak nabarmen jaitsi ziren eta aurreikuspen meteorologikoak ere hobetzen zebiltzan.

- Horretaz aparte, azaroaren 30ean, larrialdietako zerbitzuak bi eguneko bilaketa-lanen ondoren, Galdakaoko landa-eremuan desagertutako 90 urteko gizona hipotermia sintomekin baina bizirik aurkitu zuten.

- Amaitzeko, abenduaren 27an, Bilboko Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarreko tunelean errepide bidezko salgai arriskutsuen garraiobide batek istripu bat izan zuen, Barakaldo parean.

- Finalmente, el 12 de diciembre, el Gobierno Vasco desactivó el Plan Especial de Emergencias ante el Riesgo de Inundaciones en Álava debido a la mejoría observada en las previsiones meteorológicas y a la bajada considerable de los niveles de las cuencas como consecuencia de la disminución generalizada de las precipitaciones y de la favorable evolución en el ámbito del sistema Zadorra.

- En otro orden de cosas, el 30 de noviembre, los servicios de emergencias, tras 2 días de búsqueda, localizaron vivo, con síntomas de hipotermia, a un varón de 90 años desaparecido en el entorno rural de Galdakao.

- Por último, el 27 de diciembre se produjo el accidente de un transporte de mercancías peligrosas por carretera en el túnel de la Variante Sur Metropolitana de Bilbao, a la altura de Barakaldo.

4. ARAUGINTZA-JARDUERAK

LAEMZek 2021ean babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan aurrera eramandako araugintza jardueren barruan, nabarmendu behar da aniztasun funtzionala daukaten pertsonengana zein larrialdien aurrean bereziki kalteberak diren beste kolektibo batzuengana heltzeko helburuarekin, larrialdi plan berezi hauek egokitu dituela: uholde arriskuarena, arrisku sismikoarena, errepidez eta trenbidez salgai arriskutsuak garraiatzean gerta daitezkeen istripuen arriskuarena, arrisku erradiologikoarena eta baso-suteena. Plan horiek Gobernu Kontseiluak onartu zituen 2021eko otsailaren 16an.

4. ACTIVIDADES NORMATIVAS

Dentro de las actividades de carácter normativo desarrolladas por la DAEM a lo largo del 2021 en materia de protección civil y gestión de emergencias destacó la adaptación de los planes especiales de emergencia relacionados con el riesgo de inundaciones, riesgo sísmico, riesgo de accidentes en el transporte de mercancías peligrosas por carretera y ferrocarril, riesgo radiológico e incendios forestales con el objetivo de llegar a las personas con diversidad funcional y a otros colectivos de especial vulnerabilidad ante las emergencias. Dichos planes fueron aprobados por el Consejo de Gobierno del 16 de febrero del 2021.

5. PLANAK

Planen atalean, LAEMZek hainbat erakundetan aurkeztu zituen planak, onartuak izan zitezen, eta horiei buruzko txostenak 2021ean jaso ziren.

5.1 BABES ZIBILEKO PLANIFIKAZIOA

EUSKADIKO LARRIALDI AERONAUTIKOEN PLAN BEREZIA

2021eko azaroaren 17an, Babes Zibilaren Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zion Euskadiko Larrialdi Aeronautikoen Plan Bereziari. Plan berezi hori honelako larrialdiak kudeatu ahal izateko esparru organiko eta funtzionala da: aireontziak hegaz dabiltzala gertatzen direnak edo aireportuko instalazioetan gertatzen direnak, baldin eta ohiko larrialdi sistema nahikoa ez bada, Euskadin gertatzen diren hegazkintza zibileko larrialdiak eta EAEtik kanpo gertatu arren, EAEko aireporturen batean jatorria, eskala edo helmuga duten hegazkintza zibileko larrialdiak.

PRESAK ETA URTEGIAK

Azaroaren 17an, Babes Zibilaren Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zien presa hauetako larrialdi planei: San Anton (Nafarroa), El Barrancal (Burgos) eta Artiba (Bizkaia).

5. PLANES

En el capítulo de planes, la DAEM presentó para su aprobación, ante diversas instituciones, diferentes planes que fueron informados a lo largo del 2021.

5.1 PLANIFICACIÓN EN PROTECCIÓN CIVIL

PLAN ESPECIAL DE EMERGENCIAS AERONÁUTICAS DE EUSKADI

El 17 de noviembre del 2021, la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil informó favorablemente el Plan Especial de Emergencias Aeronáuticas de Euskadi. Este plan especial es el marco orgánico y funcional para hacer frente a la gestión de cualquier emergencia ocurrida en aeronaves en vuelo, en instalaciones aeroportuarias siempre que el sistema ordinario de emergencia resulte insuficiente, emergencias de aviación civil que se produzca en cualquier punto de Euskadi y emergencias de aviación civil que, aun sucediendo fuera de la comunidad autónoma, el vuelo tenga origen, escala o destino en cualquier aeropuerto de la CAE.

PRESAS Y EMBALSES

El 17 de noviembre, la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil informó favorablemente los Planes de Emergencia de las presas de San Antón (Navarra), El Barrancal (Burgos) y Artiba (Bizkaia).

ISTRIPU LARRIEN ARAUDIAREN MENPEKO ESTABLEZIMENDUAK (SEVESO)

Istripu larrien araudiari dagokionean, 2021eko azaroaren 17an, Babes Zibilaren Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zien enpresa hauetako Kanpoko Larrialdi Planei:

- BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Amorebieta)
- BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Sondika)
- BILBAÍNA DE ALQUITRANES SA (Barakaldo)
- CLH (EXOLUM) SA (El Calero)
- SANTURTZI, ZIERBENA ETA BILBOKO PORTU AUTONOMOAREN EREMUKO INDUSTRIA-GUNEA

ESTABLECIMIENTOS SOMETIDOS A LA REGLAMENTACIÓN DE ACCIDENTES GRAVES (SEVESO)

En cuanto a la normativa de accidentes graves, el 17 de noviembre del 2021, la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil informó favorablemente los Planes de Emergencia Exterior de las siguientes empresas:

- BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Amorebieta)
- BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Sondika)
- BILBAÍNA DE ALQUITRANES SA (Barakaldo)
- CLH (EXOLUM) SA (El Calero)
- ÁREA INDUSTRIAL DE LA ZONA DE SANTURTZI, ZIERBENA Y PUERTO AUTÓNOMO DE BILBAO

Era berean, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak enpresa hauetako Kanpoko Larrialdi Planen aldeko txostena eman zuen:

- DEKITRA, S.A. (Lantarón, Araba)
- GENERAL QUÍMICA, S.A.U (Lantarón, Araba)
- MAXAM OUTDOORS, SAU (Galdakao, Bizkaia)
- ACEROS INOXIDABLES OLARRA, S.A. (Loiu, Bizkaia)
- INEOS SULPHUR CHEMICAL SPAIN S.L.U. (Zierbana, Bizkaia)
- BAHIA BIZKAIA GAS, S.L.U. (Zierbana, Bizkaia)
- ESERGUI, S.A. (Zierbana, Bizkaia)
- REPSOL BUTANO, S.A. (Santurtzi, Bizkaia)

UDAL LARRIALDI PLANAK

Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman zien Udal Larrialdi Plan hauen berrikusketei eta eguneraketei: Vitoria-Gasteizkoa, Bizkaiko Elorriokoa, Igorrekoa eta Santurtzikoa eta Gipuzkoako Errenteriakoa eta Irungoa.

Horiek horrela, Udal horiek, dagoeneko, kasuan-kasuan egon daitezkeen arriskuen eta dituzten baliabideen araberako jarduera-prozedura eguneratuak dituzte, dokumentuetan jasota.

UHOLDE ARRISKUA KUDEATZEKO PLANA (UAKP)

Era berean, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren (2022-2027) aldeko txostena eman zuen, Euskadiko barne arroen eremuan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren bigarren plangintza zikloari dagokiona.

Asimismo, la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente de los Planes de Emergencia Exterior de las empresas:

- DEKITRA, S.A. (Lantarón, Araba)
- GENERAL QUÍMICA, S.A.U (Lantarón, Araba)
- MAXAM OUTDOORS, SAU (Galdakao, Bizkaia)
- ACEROS INOXIDABLES OLARRA, S.A. (Loiu, Bizkaia)
- INEOS SULPHUR CHEMICAL SPAIN S.L.U. (Zierbana, Bizkaia)
- BAHIA BIZKAIA GAS, S.L.U. (Zierbana, Bizkaia)
- ESERGUI, S.A. (Zierbana, Bizkaia)
- REPSOL BUTANO, S.A. (Santurtzi, Bizkaia)

PLANES DE EMERGENCIAS MUNICIPALES

La Comisión de Protección Civil de Euskadi también informó favorablemente acerca de la revisión y actualización de los Planes de Emergencia Municipales de Vitoria-Gasteiz, de las localidades vizcaínas de Elorrio, Igorre y Santurtzi, y de las guipuzcoanas Errenteria e Irun.

De este modo, dichos ayuntamientos ya disponen de aquellos documentos en los que figuran los procedimientos de actuación actualizados en relación a los posibles riesgos y a los recursos disponibles en cada caso.

PLAN DE GESTIÓN DEL RIESGO DE INUNDACIONES (PGRI)

De igual modo, la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente la revisión del Plan de Gestión del Riesgo de Inundación (PGRI) (2022-2027) correspondiente al segundo ciclo de planificación de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco.

5.2 AUTOBABESA

Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari atxikitako Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorraren xedea da Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemak behar bezala funtziona dezan garrantzitsuak diren autobabes-planei buruzko datuak inskribatzea.

Hori dela eta, martxoaren 1ean "Euskadiko Autobabes Planen Erregistroa" aplikazioa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora (https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/) mugitu zen, administratuei administrazioarekin jardutea errazteko asmoarekin eta Autobabeserako Euskal Arauaren aldaketara egokitzeko, aplikazioan Aurreikus Daitezkeen Arriskuetarako Baliabideetarako (ADAB) sekzio bat txertatu baita.

Erregistroko aplikazio berriarekin lotuta sortutako zalantzak argitzeko, martxoaren 3an lan-webinar bat egin zen aplikazioaren erabiltzaileentzat, eta beste bat Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren barruko pertsonentzat, aplikazioko berrikuntzak azaltzeko eta parte hartzaileen zalantzak argitzeko.

Pertsona askok parte hartu zuten, aplikazioaren erabiltzaileentzako webinarrean 890 pertsonak eta LAEESko kideei zuzendutakoan 49k. Hori dela eta, martxoaren 10ean beste bat egin zen eta horretan 159 pertsonak parte hartu zuten.

Halaber, 2021. urtean zehar LAEMZek ekintza hauei ekin zien:

AUTOBABES PLANEN ERREGISTRO OROKORRA

Autobabeserako Euskal Arauari lotutako 691 establezimendutako larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak inskribatu edo eguneratu ziren.

5.2 AUTOPROTECCIÓN

El Registro General de Planes de Autoprotección de Euskadi, adscrito a la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología, tiene la finalidad de inscribir los datos de los Planes de Autoprotección relevantes para el correcto funcionamiento del Sistema Vasco de Atención de Emergencias.

Así, el 1 de marzo se trasladó la aplicación del "Registro de Planes de Autoprotección de Euskadi" a la sede electrónica del Gobierno (https://www.euskadi.eus/sede-electronica/) con el objetivo de facilitar la interactuación de los administrados con la administración y para mejorar la adaptación al cambio normativo de la Norma Vasca de Autoprotección incluyendo en la misma una sección de Dispositivos de Riesgos Previsibles (DRP´s).

A fin de resolver las dudas surgidas ante la nueva aplicación del Registro, el día 3 de marzo se celebró una webinar de trabajo dirigida a las personas usuarias de la aplicación y otra para las personas pertenecientes al Sistema Vasco de Atención de Emergencias (SVAE) en las que se explicaron las novedades y se resolvieron las dudas que plantearon las personas participantes.

Dado el gran número de personas participantes, 890 en la webinar de usuarios y usuarias de la aplicación y 49 en la orientada a integrantes del SVAE, se repitió el formato el 10 de marzo con una participación de 159 personas.

De igual modo, durante el año 2021, la DAEM emprendió las siguientes acciones:

REGISTRO GENERAL DE PLANES DE AUTOPROTECCIÓN

Se inscribieron o actualizaron los datos relevantes para la gestión de emergencias de 691 establecimientos sujetos a la Norma Vasca de Autoprotección.

AUTOBABESAREN ARLOKO TEKNIKARI ESKUDUNAK

Era berean, Euskadiko administrazioan 134 teknikari gehiago akreditatu ziren eta horiek Autobabeserako Euskal Arauari lotutako establezimenduetarako autobabes planak egingo dituzte.

TÉCNICOS Y TÉCNICAS COMPETENTES EN MATERIA DE AUTOPROTECCIÓN

Igualmente se acreditaron ante la administración vasca 134 nuevos técnicos y técnicas que acometerán los planes de autoprotección de los establecimientos sujetos a la Norma Vasca de Autoprotección.

5.3 LURRALDE ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZA PLANIFIKAZIOA ETA INGURUMEN INPAKTUA

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Lurralde Antolamenduko, Hirigintza Planifikazioko, Ingurumen Ebaluazioko eta Ingurumen Baimen Integratuko 108 espediente izapidetu ziren.

5.3 ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, PLANIFICACIÓN URBANÍSTICA E IMPACTO AMBIENTAL

Conforme a la normativa vigente, se tramitaron 108 expedientes de Ordenación del Territorio, Planificación Urbanística, Evaluación Ambiental y Autorización Ambiental Integrada.

6. BATZORDEAK, HITZARMENAK ETA PROTOKOLOAK

LAEMZen funtzionamendu egokirako, nahitaezkoa da beste estamentu batzuekiko koordinazioa eta lankidetza. Hori dela eta, Zuzendaritza honek beharrezkoak zituen onarpenak edo aldeko txostenak jaso zituen beste erakunde eta batzorde batzuetan.

Urriaren 22an Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseilua elkartu zen.

Azaroaren 10ean, Euskadiko Babes Zibileko Boluntariotzako Aholku Batzordeak boluntarioei banatutako segurtasuneko ekipamenduaren eta ekipamendu teknikoaren berri eman zuen eta balorazio positiboa egin zuen urriaren 23an egindako Euskadiko udal-mailako babes zibileko talde eta elkarteen arduradunen lehenengo topaketaz.

Zazpi egun geroago, azaroaren 17an, Zuzendaritza honek Babes Zibilaren Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorrean parte hartu zuen.

6. COMISIONES, CONVENIOS Y PROTOCOLOS

La coordinación y colaboración con otros estamentos es fundamental para el buen funcionamiento de la DAEM. En este sentido, esta Dirección obtuvo la aprobación o los informes favorables pertinentes ante diversas instituciones y comisiones.

El 22 de octubre se reunió el Consejo Rector de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

El 10 de noviembre, el Comité Asesor del Voluntariado Vasco de Protección Civil dio cuenta de la entrega a este colectivo de diverso equipamiento técnico y de seguridad al tiempo que valoró positivamente el Primer Encuentro de Responsables de Agrupaciones y Asociaciones de Protección Civil Municipal de Euskadi celebrado el 23 de octubre.

Siete días más tarde, el 17 de noviembre, esta Dirección participó en la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil.

Astebete geroago, azaroaren 24an, Su Prebentzio, Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuen (SPEIS) Batzordeak bilera egin zuen batzordekideak diren erakunde eta organismoei egindako jardueren berri emateko eta Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Lege-proiektua Eusko Legebiltzarrera eraman aurreko lan-egutegia aurkezteko; lege-proiek-tu hori XII. Legegintzaldiko konpromisoetako bat da eta.

Abenduaren 13an, Sarien Batzordea elkartu zen, Larrialdietako eta Babes Zibileko Merezimenduaren dominak norentzat izango ziren zehazteko.

Hurrengo egunean, abenduaren 14an, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak, besteak beste, Kanpoko Larrialdi Plan hauen eguneraketen aldeko txostena eman zuen, eta hala badagokio beren berrikusketen aldekoa: arrisku kimikoarekin lotutako euskal enpresa batzuenak eta Santurtzi, Zierbena eta Bilboko Portuko industria-gunearena. Era berean, Euskadiko 6 udalerriren Udal Larrialdi Planen eguneratzeen aldeko txostena eman zuen.

Batzorde horietan ez ezik, LAEMZek beste batzorde eta kontseilu hauetan ere parte hartzen du: Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Koordinazio- eta Jarraipen-batzordea, Garoñako Zentral Nuklearra Desegiteko Prozesuaren Jarraipenerako Erakundeen arteko Batzordea, Babes Zibilaren Kontseilu Nazionalaren

Una semana después, el 24 de noviembre, la Comisión para los Servicios de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento (SPEIS) se reunió a fin de informar a las instituciones y organismos integrantes de la misma de las acciones llevadas a cabo y del calendario de trabajo previsto antes de llevar a la Cámara Vasca el Proyecto de Ley de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento, uno de los compromisos de la XII Legislatura.

El 13 de diciembre tuvo lugar la Comisión de Distinciones en la que se determinaron las personas acreedoras a las Medallas al Mérito en Emergencias y Protección Civil.

Al día siguiente, el 14 de diciembre, la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente, entre otras cuestiones, de la actualización, y revisión en su caso, de los Planes de Emergencia Exterior de diversas empresas vascas relacionadas con el riesgo químico, así como del área industrial de Santurtzi, Zierbena y Puerto de Bilbao. De igual modo, informó favorablemente acerca de las actualizaciones de los Planes de Emergencia Municipal de 6 municipios vascos.

Al margen de las comisiones citadas, la DAEM también participa en las siguientes comisiones y consejos: Comisión de Coordinación y Seguimiento de la Estrategia de Prevención del Suicidio, Comisión Interinstitucional para el Seguimiento del Proceso de Desman-

Batzorde Iraunkorra, Bide Segurtasuneko Batzordea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Batzordea, Babes Zibilaren Kontseilu Nazionala, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseilua, Uraren Kontseilua eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Kontseilua.

Horretaz gain, LAEMZek 2021ean Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu zen zenbait erakunde eta organismorekin 15 hitzarmen sinatzeko, besteak beste hauekin: Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udala, Euskal Mendizale Federazioa, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Euskal Espeleologoen Elkartea, Enpresa Kimikoen Euskal Elkartea (AVEQ-KIMIKA), AZTI itsas ingurunean eta elikaduran espezializatuta dagoen zentro teknologikoa, DYA eta Gurutze Gorria.

Azkenik, Santurtziko, Muskizko, Hernaniko eta Lantarongo udalekin sinatutako hitzarmenak ere azpimarratu behar dira, larrialdi-egoeretan herritarrei abisatzeko sistemak instalatzearekin lotutako lankidetza-esparrua ezarri eta arautzeko.

telamiento de la Central Nuclear de Garoña, Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil, Comisión de Seguridad Vial, Consejo de Seguridad Pública de Euskadi, Consejo Nacional de Protección Civil, Consejo Rector de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, Consejo del Agua y Consejo de Espectáculos y Actividades Recreativas.

Además, la DAEM colaboró en el 2021 con la Dirección de Régimen Jurídico en la suscripción de 15 convenios con diferentes entidades y organismos, entre ellos los relativos a las diputaciones de Álava y Bizkaia, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, la Federación Vasca de Montaña, el Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, la Asociación Euskal Espeleologoen Elkarkoa-Unión de Espeleólogos Vascos, la Asociación Vasca de Empresas Químicas (AVEQ-KIMIKA), el centro tecnológico especializado en ciencia marina y alimentaria, AZTI, DYA y Cruz Roja.

Por último hay que destacar también los convenios suscritos con los ayuntamientos de Santurtzi, Muskiz, Hernani y Lantaron dirigidos a establecer y regular el marco de colaboración relativa a la instalación de un sistema de avisos a la población en situaciones de emergencia.

7. SIMULAKROAK ETA JARDUKETAK

2021. urtean zehar, LAEMZek simulakroetan parte hartzen jarraitu du. Horiek horrela, urtean zehar, AVEQ-KIMIKA - Enpresa Kimikoen Euskal Elkartearekin lankidetzan EAEko larrialdi kimikoko sirenen sarea aktibatzeko jarduketa batzuk egin ziren.

Jarduketa horietaz aparte, LAEMZek, apirilaren 2ean, Arabako eta Logroñoko Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuek antolatutako sute-simulakro batean parte hartu zuen, Guardian dagoen Ramondín enpresan.

Ekainaren 25ean, 26an eta 27an, Markinan, Otxandion eta Kanpazarren IRO-International Rescue Dog Organitation-en homologazio-probak egin ziren. Egun horietan bertan, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeak 11 binomio aurkeztu zituen probara eta 15 homologazio lortu zituen eremu handietan, hondakinetan eta mantrailing-ean. Proba horietan LAEMZeko esku-hartzeko teknikari bat egon zen.

7. SIMULACROS Y EJERCICIOS

En el transcurso del 2021, la DAEM ha continuado participando en distintos simulacros. Así, a lo largo del año, se realizaron diversos ejercicios de activación de la red de sirenas de emergencia química de la CAE en colaboración con AVEQ-KIMIKA, Asociación Vasca de Empresas Químicas.

Al margen de dichos ejercicios, la DAEM participó el 21 de abril en un simulacro de incendio organizado por los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento de Álava y Logroño que tuvo lugar en la empresa Ramondín, radicada en Laguardia.

Los días 25, 26 y 27 de junio, se celebraron en Markina, Otxandio y Kanpazar las pruebas de homologación de la International Rescue Dog Organitation–IRO. En las mismas, el Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi presentó a prueba 11 binomios y consiguió 15 homologaciones en grandes áreas, escombros y mantrailing. A las mismas asistió una técnica de Intervención de la DAEM.

Ezin da aipatu gabe utzi Samaniegon 2021eko uztailaren 8an hauekin guztiekin egindako baso-sutearen simulakroa: Arabako suhiltzaileekin, Arabako Mendi Zerbitzuarekin, Errioxako Baso Suhiltzaileekin eta Errioxaren eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aire-baliabideekin, baita Ministerio horri atxikita dauden Baso Suteetarako Errefortzuko Brigadekin (BRIF) ere.

Irailaren 16an, berrogeita hamar espezialista inguruk parte hartu zuten hiru egunean espeleolaguntzako erreskate-simulakro batean, Eusko Jaurlaritzaren erakunde laguntzailea den Euskal Espeleologoen Elkarteak Gipuzkoako Gaztelu III (Leguria-Aretxabaleta) leize-zuloan antolatutako simulakroan. Jarduketa horretan Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko efektiboek parte hartu zuten eta LAEMZeko esku-hartzeko teknikari batek.

Urriaren 2an, LAEMZek Vitoria-Gasteizko aireportuan egin zen aireontzi-istripu baten simulakroan parte hartu zuen.

Zuzendaritza honek abenduaren 2an horren antzeko jarduketa batean ere parte hartu zuen, baina Hondarribiako aireportuan.

Asimismo cabe destacar el simulacro de incendio forestal realizado en Samaniego el 8 de julio del 2021 junto a los Bomberos de Álava, el Servicio de montes de Álava, los Bomberos Forestales de La Rioja y medios aéreos de La Rioja y del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico y Brigadas de Refuerzo en Incendios Forestales (BRIF), también adscritas a dicho Ministerio.

El 16 de septiembre, alrededor de medio centenar de especialistas participaron a lo largo de 3 días en un simulacro de espeleosocorro de rescate en la sima guipuzcoana Gaztelu III (Leguria-Aretxabaleta) organizado por la Unión de Espeleólogos Vascos, entidad colaboradora del Gobierno Vasco. En el ejercicio participaron efectivos de la Unidad de Vigilancia y Rescate de la Ertzaintza y una técnica de Intervención de la DAEM.

El 20 de octubre, la DAEM participó en el simulacro de accidente de una aeronave que tuvo lugar en el aeropuerto de Vitoria-Gasteiz.

De igual modo, esta Dirección participó el 2 de diciembre en un ejercicio similar desarrollado, en esta ocasión, en el aeropuerto de Hondarribia.

8. ZABALKUNDEA

Zabalkunde etengabeak gizartearen autobabes maila handitzen laguntzen du. Euskadiko herritarrengana berme handienarekin heltzeko helburuarekin, Zuzendaritza honek komunikazio-tresna hauek erabiltzen ditu:

LAEMZek bi Twitter-kontu aktibo ditu: @112_SOSDeiak eta @Euskalmet. Bi horiek 2021ean datu hauek lortu zituzten:

8. DIVULGACIÓN

La divulgación continua contribuye a incrementar los niveles de autoprotección de la sociedad. A fin de llegar a la población vasca con las máximas garantías, esta Dirección utiliza las siguientes herramientas comunicativas:

La DAEM mantiene activas dos cuentas en Twitter @112_SOSDeiak y @Euskalmet. Los datos obtenidos por ambas en el 2021 fueron los siguientes:

2021EAN LORTUTAKO DATUAK | **DATOS OBTENIDOS EN 2021**

@112_SOSDeiak

Jarritako txioak: Tweets emitidos:

2.516

Jarraitzaile kopurua: Nº de seguidores:

37.908

Web-orriaren bisitak Visitas a la página web:

128.264

APP-aren deskargak: Descargas APP:

55.183

2021EAN LORTUTAKO DATUAK | **DATOS OBTENIDOS EN 2021**

@Euskalmet

Jarritako txioak: Tweets emitidos:

4.968

Jarraitzaile kopurua: Nº de seguidores:

119.822

Web-orriaren bisitak Visitas a la página web:

10.891.983

APP-aren deskargak: Descargas APP:

47.838

Larrialdien munduan funtsezkoa izaten da betiko komunikabideekin (prentsa, irratia eta telebista) harreman ona eta erregularra izatea. 2021ean erregistro hauek lortu ziren:

- Elkarrizketak prentsan: 64
- Elkarrizketak irratian: 145
- Elkarrizketak telebistan: 83
- Prentsa-oharrak: 63

Horrez gain, LAEMZek, Euskalmeten bitartez, urte osoan zehar (asteburuetan ere bai) eguraldiaren iragarpena modu pertsonalizatuan eskaini zien, goizeko eta arratsaldeko ordutegian, EAEko irrati hauei:

- Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervión, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, eta Uribe FM, besteak beste.

Zabalpenaren arloan, Euskal Meteorologia Agentziak 2021ean lankidetza finko hauek izan zituen:

- Radio Euskadi: aldian behingo kolaborazioa "La Mecánica del caracol" izeneko saioan.
- Euskadi Irratia: aldian behingo kolaborazioa "Norteko Ferrokarrila" saioan.
- Onda Vasca: asteburuko kolaborazioa.

Halaber, 2021ean zehar Euskalmetek programa berezi batzuetan parte hartu zuen, esaterako, hauetan: ETB2ko "El Cambio" eta "Especial inundaciones" programetan; lehenengoan, aldaketa klimatikoak Euskadin duen eragina aztertu zen, eta bigarrenean, profesional aditu batzuek ikuspegi zientifikotik hitz egin zuten urte amaierako uholdeak eragin zituzten kausei buruz.

Klimaren Goi-bilera dela eta, Euskalmetek Euskadiko telebista publikoaren espazio batzuetan parte hartu zuen, espazio informatiboetan zein BBK-k eta kanal autonomikoak berak sustatutako dokumental txikietan.

En el mundo de las emergencias es fundamental mantener con los medios de comunicación tradicionales (prensa, radio y televisión) una relación fluida y regular. En el 2021 se obtuvieron los siguientes registros:

- Entrevistas en prensa: 64
- Entrevistas en radio: 145
- Entrevistas en televisión: 83
- Notas de prensa: 63

Además, la DAEM, a través de Euskalmet, ofreció durante todo el año (incluidos los fines de semana) el pronóstico del tiempo de forma personalizada, en horarios de mañana y tarde a diversas emisoras de radio de la CAE entre las que destacaron:

- Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervión, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, y Uribe FM, entre otras.

Dentro del apartado divulgativo, la Agencia Vasca de Meteorología mantuvo en 2021 las siguientes colaboraciones fijas:

- Radio Euskadi: Colaboración periódica en el programa "La Mecánica del caracol".
- Euskadi Irratia: Colaboración periódica en el programa "Norteko Ferrokarrila".
- Onda Vasca: Colaboración de fin de semana.

Igualmente, a lo largo del 2021 Euskalmet participó en diversos programas especiales tales como "El Cambio" en ETB2, enfocado a analizar los efectos del cambio climático en Euskadi y "Especial inundaciones", también en ETB 2, en el que profesionales expertos abordaron, desde un punto de vista científico, las causas que produjeron las inundaciones de finales de año.

En relación a la Cumbre del Clima, Euskalmet también participó en diversos espacios de la televisión pública vasca, tanto en informativos como en pequeños documentales auspiciados por BBK y el propio canal autonómico.

9. PRESTAKUNTZA-RAKO LANKIDETZA

LAEMZek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin batera etengabe lan egiten du larrialdi-zerbitzuen urteko prestakuntzaren arloan.

Horiek horrela, 2021ean 3.063 pertsona (%43 emakumeak eta %57 gizonak), gehienak Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemarekin lotuta, Zuzendaritzak emandako 25 hitzaldietako batean egon ziren.

LAEMZek prestakuntzaren arloan egindako lanari dagokionean, nabarmendu behar dira Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemari buruzko bideo formatuko hitzaldiak, Zuzendaritzako 11 teknikarik prestatutakoak. Ikus-entzunezko material horri esker, Akademian

9. COLABORACIÓN EN FORMACIÓN

La DAEM colabora permanente con la Academia Vasca de Policía y Emergencias en la formación de los distintos servicios de emergencias a lo largo de todo el año.

Así, en el 2021, 3.063 personas (43% mujeres y 57% hombres), en su mayor parte relacionadas con el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil, asistieron a alguna de las 25 ponencias impartidas por esta Dirección.

Entre el trabajo más significativo a nivel formativo desarrollado por la DAEM destacó la realización de diversas ponencias en formato de vídeo sobre el Sistema Vasco de Atención de Emergencias que prepararon 11 técnicos y técnicas de la Dirección. Con este material



2021ean eta horren ondorengo promozioetan prestakuntza jaso zuten profesionalen oinarrizko prestakuntza osatu zen.

audiovisual se contribuyó a completar la formación básica de los y las profesionales que se formaron en la Academia en el 2021 y en sucesivas promociones.

Era berean, LAEMZek, Osasun Sailak bultzatu zuen Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Jarraipen Batzordeko kidea den aldetik, eta dokumentu horrek ezartzen duen etengabeko prestakuntzaren jarduera-arloaren barruan, prestakuntza eman zien 112ko arreta telefonikoan dabiltzan 60 operadore baino gehiagori.

De igual modo, la DAEM, como miembro de la Comisión de Seguimiento de la Estrategia de Prevención de Suicidio impulsada por el Departamento de Salud, y dentro del área de actuación de formación continua que establece dicho documento, impartió formación a más de 60 operadores y operadoras de atención telefónica 112.

Era berean, LAEMZek ekainean ASAFESek (Arabako Eri Mentalen eta Senideen Elkartea) antolatutako jardunaldi batean parte hartu zuen eta hor LAEESek arlo hauetan egiten duen lanaren berri eman zuen: jokabide suiziden prebentzioan, esku-hartzean eta postbentzioan. Irailaren 10ean, Suizidioa Prebenitzeko Munduko Eguna zela eta, LAEMZek, BIZIRAUNek (Maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkartea) gonbidatuta, hitzaldi bat eman zuen suizidioagatik hil diren pertsonen senideei eta haiek maite dutenei zuzenduta.

Asimismo, la DAEM participó en junio en una jornada organizada por ASAFES (Asociación Alavesa de Familiares y Personas con Enfermedad Mental) difundiendo el trabajo del SVAE en las áreas de: prevención, intervención y postvención en las conductas suicidas. El 10 de septiembre, con motivo del Día Mundial para la Prevención del Suicidio, la DAEM, invitada por BIZIRAUN (Asociación de personas afectadas por el suicidio de un ser querido), ofreció una ponencia dirigida a los familiares y seres queridos de personas que han fallecido a causa del suicidio.

10. EKITALDI INSTITUZIONALAK

10.1 LARRIALDIETAKO MEREZIMENDUAREN DOMINAK EMATEA

2021eko urtarrilaren 26an, aurreko urtean babes zibilaren arloan merezimenduzko ekintzak egin zituztenen edo gizarteko lan solidarioa, batez ere osasun krisi orokorrarekin lotuta, egin zutenen aitorpenak argitaratu zituen Jaurlaritzak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean.

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak "Larrialdietako eta Babes Zibileko Merezimenduaren" bereizgarri berdeko 5 domina banatu zizkien arlo horretan merezimenduzko ekintzak egin zituzten 5 pertsoni; 3 plaka-diploma psikologiaren euskal elkargoei, nahitaezko konfinamenduaren eta lehen osasun-alarmaren ondorioak murrizteko egindako lana aitortzeko; eta 17 egiaztatze-diploma babes zibilaren arloan zerbitzuan 25 eta 10 urte eman zituzten boluntarioei, 2020an pandemiaren ondorioz sortutako gizarte-lan handian modu altruistan aritu ziren horiei, hain zuzen.

10. ACTOS INSTITUCIONALES

10.1 CONCESIÓN DE MEDALLAS AL MÉRITO EN EMERGENCIAS

El 26 de enero del 2021, el Boletín Oficial del País Vasco publicó los reconocimientos del Gobierno a las personas que durante el año anterior realizaron actos meritorios en el ámbito de la protección civil o llevaron a cabo una labor social solidaria, sobre todo, relacionada con la crisis sanitaria global.

En concreto, el Gobierno Vasco otorgó 5 medallas al "Mérito en Emergencias y Protección Civil" con distintivo verde para 5 personas que actuaron meritoriamente en este ámbito, 3 placas-diploma en reconocimiento a la labor desarrollada por los colegios vascos de psicología dirigida a reducir los efectos del primer estado de alarma sanitaria y del confinamiento obligatorio y 17 diplomas acreditativos a aquellos voluntarios y voluntarias de protección civil con 25 y 10 años de servicio y que, en el 2020, se sumaron de manera altruista al gran trabajo social surgido a raíz de la pandemia.

5 DOMINAK

- **Marcial Moduga Alonso:** 2020ko otsailaren 6an, Vitoria-Gasteizko noranzkoan zihoan ibilgailu baten gidariak N-622 autobidean istripu bat izan zuen. Marcial Moduga Alonsok (zerbitzutik kanpo zegoen ertzaina) lagundu zion eta gidaria salbu jarri zuen istripua izandako ibilgailua su hartzen hasi zenean.

- **María Jesusa Ancizar Eguilegor:** 2020ko martxoaren 7an eta 8an, María Jesusa Ancizar Eguilegorrek bere baserrian modu solidarioan eta desinteresatuan lagundu zien Gipuzkoako Hernani parean zirkulatzen zebilen ibilgailua Urumea ibaira erori ondoren hildako hiru pertsonaren senide eta hurbilekoei.

- **Roberto Aretxabala:** 2020ko uztailaren 28an, Roberto Aretxabalak 71 urteko emakume bati bizitza salbatu zion, Bizkaiko Erandio udalerrian itsasadarreko uretan erori baitzen.

- **Marcelino Domínguez González eta Imanol Domínguez De Miguel:** 2020ko ekainaren 27an, kamioi trailer batek istripua izan zuen eta Valladolid-Burgos autobidean gurutzatuta geratu zen. Gipuzkoako Foru Aldundian suhiltzaile-kaboa den Marcelino Domínguez Gonzálezek eta haren semeak, erizaina eta DYAn boluntarioa den Imanol Domínguez De Miguelek, zaurituei osasun arreta eman zieten eta zirkulazioaz ere arduratu ziren ikuspen gutxiko eremua zelako.

5 MEDALLAS

- **Marcial Moduga Alonso:** El 6 de febrero del 2020, el conductor de un vehículo que viajaba en sentido Vitoria-Gasteiz sufrió un accidente en la autovía N-622. Marcial Moduga Alonso (ertzaina fuera de servicio) socorrió y puso a salvo al conductor del vehículo accidentado cuando este ya comenzaba a arder.

- **María Jesusa Ancizar Eguilegor:** Durante los días 7 y 8 de marzo del 2020, María Jesusa Anzizar Eguilegor atendió en su caserío, de forma solidaria y desinteresada, a los familiares y allegados de las tres personas fallecidas tras precipitarse al río Urumea el vehículo en el que circulaban a la altura del municipio guipuzcoano de Hernani.

- **Roberto Aretxabala:** El 28 de julio del 2020, Roberto Aretxabala salvó la vida a una mujer de 71 años que había caído a las aguas de la Ría a la altura del municipio vizcaíno de Erandio.

- **Marcelino Domínguez González e Imanol Domínguez De Miguel:** El 27 de junio del 2020, un camión tráiler se accidentó y quedó cruzado en la autovía Valladolid-Burgos. Marcelino Domínguez González, cabo-bombero de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y su hijo Imanol Domínguez De Miguel, enfermero y voluntario de la DYA, prestaron atención sanitaria a los heridos e incluso se hicieron cargo del tráfico por tratarse de una zona con poca visibilidad.

3 PLAKA-DIPLOMA

- Arabako Psikologia Elkargo Ofiziala.
- Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofiziala.
- Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala.

3 PLACAS-DIPLOMA

- Colegio Oficial de Psicólogos de Álava.
- Colegio Oficial de Psicología de Bizkaia.
- Colegio Oficial de Psicología de Gipuzkoa.

17 EGIAZTATZE-DIPLOMA

- **25 urte zerbitzuan:** Arturo Hermoso de Mendoza Errea, Izaskun Yeregui Prieto, Francisco José Cela García, Mª Auxiliadora López Cuevas eta Emilio San Juan Sierra.

17 DIPLOMAS ACREDITATIVOS

- **Con 25 años de servicio:** Arturo Hermoso de Mendoza Errea, Izaskun Yeregui Prieto, Francisco José Cela García, Mª Auxiliadora López Cuevas y Emilio San Juan Sierra.

- **10 urte zerbitzuan:** Urtzi Arteagoitia Ruíz, Ander Oleaga Benguria, Andoni Lázaro Laka, Roberto Fandiño Cotos, Amaia Castrillo Olabarria, Bingen Etxebarria Goikoetxea, Pedro Meléndez García, Rubén de la Rúa Maíllo, David Celada Bartolomé, Imanol Rodríguez Ariño, Elisabet Granado Gómez eta Juantxo Ramada Jiménez.

10.2 TRAFIKOAREN ETA LARRIALDIEN ARLOKO EUSKADI-NAFARROA BILERA

Irailaren 8an, Josu Erkoreka, Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua, eta Javier Rémirez, Nafarroako Gobernuaren Lehen lehendakariordea eta Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne kontseilaria, Trafikoa eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan elkartu ziren, larrialdien arloan laguntza eta baterako lana sendotzeko eta trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloan lankidetzarako bideak ezartzeko.

- **Con 10 años de servicio:** Urtzi Arteagoitia Ruíz, Ander Oleaga Benguria, Andoni Lázaro Laka, Roberto Fandiño Cotos, Amaia Castrillo Olabarria, Bingen Etxebarria Goikoetxea, Pedro Meléndez García, Rubén de la Rúa Maíllo, David Celada Bartolomé, Imanol Rodríguez Ariño, Elisabet Granado Gómez y Juantxo Ramada Jiménez.

10.2 REUNIÓN EUSKADI-NAVARRA EN MATERIA DE TRÁFICO Y EMERGENCIAS

El 8 de septiembre, el Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, Josu Erkoreka, y el Vicepresidente Primero y Consejero de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior del Gobierno de Navarra, Javier Remírez, se reunieron en el Centro de Coordinación de Tráfico y Emergencias para reforzar la colaboración y el trabajo conjunto en materia de emergencias y establecer vías de cooperación en materia de tráfico y seguridad vial.

11. JARDUNALDIAK ETA TOPAKETAK

11.1 HONDARTZA, URTEGI, IBAI ETA IGERILEKUEI BURUZKO XV. JARDUNALDI TEKNIKOA

Maiatzaren 27an, Euskadiko salbamendu- eta soros-pen-zerbitzuetako hogei bat koordinatzailek Segurtasun Sailak antolatutako XV. jardunaldi teknikoan parte hartu zuten. Prestakuntzako jardunaldi horretan hondartzetan, urtegietan, ibaietan eta igerilekuetan izaten diren larrialdiekin lotutako alderdiei buruz hitz egin zen.

Jardunaldia urtero egiten da bainu-denboraldia hasi aurretik.

11. JORNADAS Y ENCUENTROS

11.1 XV JORNADA TÉCNICA DE PLAYAS, PANTANOS, RÍOS Y PISCINAS

El 27 de mayo, alrededor de una veintena de coordinadores y coordinadoras de los servicios de salvamento y socorrismo de Euskadi participaron en la XV Jornada Técnica, de carácter formativo, organizada por el Departamento de Seguridad en la que se abordaron diversos aspectos relacionados con las emergencias en playas, pantanos, ríos y piscinas.

La Jornada se celebra anualmente como actividad previa al inicio de la temporada de baños.

11.2 LAN-BILERA KANTABRIAKO GOBERNUKO LARRIALDIETAKO ARRETAREKIN

Azaroaren 11n, Fernando Izaguirre Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako zuzendariak eta Jezabel Morán Lamadrid Kantabriako Gobernuaren Barne Departamenduko zuzendari nagusiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan lan-bilera bat egin zuten, bi erkidegoen arteko eremu mugakideetan arrisku kimikoarengatik sortzen diren larrialdietan bi erakundeen arteko lankidetza indartzeko.

Bileran eremu mugakideetako larrialdiekin lotutako alderdi komun garrantzitsuei buruz ere hitz egin zen, besteak beste, baso-suteei buruz, trafiko-istripuei buruz edo suhiltzaile talde desberdinen arteko elkarreraginari buruz.

11.3 BOLUNTARIO-ELKARTEEN LEHEN TOPAKETA

Urriaren 23an Euskadiko Udal mailako Babes Zibileko Talde eta Elkarteetako arduradunen lehen topaketa egin zen eta horretan 15 talde/elkartek parte hartu zuten.

11.2 REUNIÓN DE TRABAJO CON ATENCIÓN A EMERGENCIAS DEL GOBIERNO DE CANTABRIA

El 11 de noviembre, el Director de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco, Fernando Izaguirre, y la Directora General de Interior del Gobierno de Cantabria, Jezabel Morán Lamadrid, mantuvieron una reunión de trabajo en el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi a fin de reforzar la colaboración entre ambas instituciones en materia de emergencias por riesgo químico en lo que se refiere a las zonas limítrofes de ambas comunidades.

La reunión también sirvió para abordar diversas cuestiones de interés común relacionadas con las emergencias en las zonas limítrofes, tales como los incendios forestales, los accidentes de tráfico o la interacción de los diversos parques de bomberos.

11.3 PRIMER ENCUENTRO DE ORGANIZACIONES DE VOLUNTARIADO

El 23 de octubre tuvo lugar el Primer Encuentro de Responsables de Agrupaciones y Asociaciones de Protección Civil Municipal de Euskadi en el que participaron 15 asociaciones/agrupaciones.

12. BOLUNTARIOAK

Boluntarioen elkarteak ezinbestekoak dira Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sisteman, herritarrek babes zibileko lanetan daukaten parte hartzea bideratzen dutelako. Haien irabazi asmorik gabeko laguntzari, konpromiso maila altuari eta kualifikazio altuari esker, gure Erkidegoak segurtasun maila handiagoa dauka.

Boluntarioek, aldian-aldian, Euskadin urtean zehar egiten diren jarduera askotan, prebentzio-lanetan laguntzen digute.

Istripu, hondamendi edo lazeria publikoetan, funtzionalki dagokion agintaritzaren mende jarduten dute, eta, arau orokor gisa, parte-hartzeko eskatzen zaien larrialdietan esku-hartzen dute, Babes Zibileko Planei eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren Taktika Operatiboei jarraituta.

12. VOLUNTARIADO

Las organizaciones del voluntariado son una pieza indispensable del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil ya que vehiculan la participación de la ciudadanía en las tareas de protección civil. Su colaboración desinteresada, su grado de compromiso y su alta cualificación contribuyen a que nuestra comunidad disfrute de un mayor nivel de seguridad.

El voluntariado participa de manera regular en tareas de prevención en muchas de las actividades que se desarrollan en Euskadi a lo largo del año.

Su actuación en caso de accidentes, catástrofes o calamidades públicas se desarrolla bajo la dependencia funcional de la autoridad competente correspondiente y como regla general intervienen en aquellas emergencias en las que se requiere su participación siguiendo los Planes de Protección Civil y las Tácticas Operativas del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil.

Babes Zibileko entitate laguntzaile gisa izena emanda dauden boluntario-talde eta -elkarteak hauek dira:

- **Araban:** Amurrio, Gatzaga Buradon, Gaubea, Laudio eta Arabako Mendialdea.
- **Bizkaian:** Alonsotegi, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Karrantza, Mungia, Muskiz, Ortuella, Urduña, Lanestosa, Sestao, Otxandio eta Erandio.
- **Gipuzkoan:** Errenteria, Irun, Irura, Pasaia, Tolosa, Zarautz eta Ordizia.

Horrez gain, gogorarazi behar da 2021ean entitate hauek izan dutela Segurtasun Sailarekin lankidetza-hitzarmena: Gurutze Gorria, DYA, Euskadiko Larrialdietarako Boluntario Digitalen Elkartea-VOST EUSKADI, Euskal Espeleologoen Elkargoa, Euskal Mendizale Federazioa, eta Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea.

Las asociaciones y agrupaciones de voluntarios y voluntarias inscritas como entidades colaboradoras de protección civil son las siguientes:

- **Araba:** Amurrio, Salinillas de Buradón, Valdegovía, Llodio y Montaña Alavesa.
- **Bizkaia:** Alonsotegi, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Karrantza, Mungia, Muskiz, Ortuella, Orduña, Lanestosa, Sestao, Otxandio y Erandio.
- **Gipuzkoa:** Errenteria, Irun, Irura, Pasaia, Tolosa, Zarautz y Ordizia.

Hay que recordar que, en el 2021, las entidades colaboradoras que mantuvieron convenios con el Departamento de Seguridad fueron: Cruz Roja, DYA, Asociación de Voluntarios Digitales de Emergencias de Euskadi-VOST EUSKADI, Unión de Espeleólogos Vascos-Euskal Espeleologoen Elkarkoa, Federación Vasca de Montaña-Euskal Mendizale Federazioa, y Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi-Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea.

Otsailaren 16an, Irunen Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen tokiko 26 talde eta elkarteri 410 identifikazio-txaleko banatu zitzaizkien. Boluntariotzaren Aholku Batzordeak erabakitako ekimen horren bidez, kolektibo horri irudi bateratua eta ezaguterraza eman nahi izan zitzaion; eta horretarako, txalekoetan elkarte guztien anagramak, 112 SOS Deiaken logotipo ofiziala eta "BABES ZIBILA-PROTECCIÓN CIVIL" esaldia txertatu ziren.

Era berean, martxoaren 2an, Bizkaiko Mungia Udalerrian Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen beste hainbeste tokiko talde eta elkarteri larrialdietarako erraz muntatzeko 12 karpa banatu zitzaizkien.

Ekimen horri 2020an eman zitzaion hasiera, orduan ere beste 12 karpa banatu zirelako, kolektibo horrek larrialdietan ezinbestekoa den tresna hori izan dezan. Karpak gogorrak eta erraz muntatzekoak izaten dira eta, horrez gain, irudi bateratua eta ezaguterraza ematen dute, horien diseinuan Eusko Jaurlaritzaren eta 112 SOS Deiaken logo ofizialak txertatuta baitaude.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak, martxoaren 2an, orduan Laudion eta Mungian, Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen tokiko talde eta elkarteei irrati mugikorreko 30 ekipo ere banatu zizkien. Ekipo horiek ENBOR SAREA Segurtasun Publikoko Sarean integratuta daude.

El 16 de febrero se inició en Irun la entrega de 410 chalecos identificativos destinados a las 26 asociaciones y agrupaciones locales de voluntariado de Protección Civil de Euskadi. La iniciativa, adoptada por el Comité Asesor del Voluntariado, pretendió dotar a este colectivo de una imagen unitaria y reconocible a través de un diseño en el que figuran los anagramas de cada organización, el logotipo oficial 112 SOS Deiak y la frase "BABES ZIBILA-PROTECCIÓN CIVIL".

De igual modo, el 2 de marzo, se inició en la localidad vizcaína de Mungia, la entrega de 12 carpas de despliegue rápido de emergencias destinadas a otras tantas asociaciones y agrupaciones locales de voluntarios y voluntarias de Protección Civil de Euskadi.

Se trata de una iniciativa que dio comienzo en el 2020 con el reparto de otras 12 carpas al objeto de dotar a este colectivo de una herramienta indispensable en el campo de las emergencias. Las carpas, caracterizadas por su robustez y su fácil montaje, ofrecen, además, una imagen unitaria y reconocible gracias a un diseño en el que figuran integrados los logos oficiales del Gobierno Vasco y 112 SOS Deiak.

De forma paralela, el Gobierno Vasco inició también el 2 de marzo, esta vez en Laudio y Mungia, la entrega de 30 nuevos equipos portátiles radio-móviles destinados a las distintas asociaciones y agrupaciones locales de voluntarios y voluntarias de Protección Civil de Euskadi. Los equipos están integrados en la Red de Seguridad Pública ENBOR SAREA.

13. PROIEKTU EUROPARRAK

LAEMZek, aurreko urteetan bezala, Europako hainbat proiektutan parte hartzen jarraitzen du: PEMEA proiektuan (PAN-EUROPEAN MOBILE EMERGENCY APP) "end user" (azken erabiltzaile) moduan, 112 SOS-Deiakeko APP-a beste APP europar batzuekin bateragarria izan dadin lortzeko.

Halaber, Zuzendaritza honek parte hartzen du autonomia erkidegoetako 112 zentroek, Barne Ministerioarekin eta Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioarekin eta telefonia mugikorreko operadoreekin lankidetzan, deiak hobeto geolokalizatzea helburu duen proiektu europarrean.

Advanced Mobile Location (AML) izeneko sistemak zehaztu ahal du zein den deitzen duen pertsonaren kokapena, 15 eta 20 metro bitarteko erradio batean eta horri esker, arreta lehenago eman daiteke eta larrialdiaren lekura mugitzen diren zerbitzuak arinago hel daitezke.

13. PROYECTOS EUROPEOS

La DAEM participa, al igual que en años anteriores, en diversos proyectos europeos colaborando como "end user" (usuario final) en el proyecto PEMEA (PAN-EUROPEAN MOBILE EMERGENCY APP) cuya finalidad es que la APP del 112 SOS Deiak sea compatible con otras APP europeas.

De igual modo, esta Dirección participa en un proyecto europeo cuyo fin es mejorar la geolocalización de llamadas el conjunto de Centros 112 de las CC.AA., en coordinación con los Ministerios de Interior y de Asuntos Económicos y Transformación Digital y los operadores de telefonía móvil.

El sistema, denominado Advanced Mobile Location (AML), determina la ubicación de la persona que llama en un radio de 15 a 20 metros, con lo cual se mejora la rapidez en la atención y se agiliza la llegada de los servicios que se desplazan al lugar de la emergencia.

Izan ere, telefono adimendunek, erabiltzaileak 112ra deitu duela detektatzen dutenean, kokapen zehatza ematen duen GPS funtzioa automatikoki aktibatzen dute eta deia jasotzen duen zerbitzuari mezu batean kokapen-koordenadak bidaltzen dizkiote.

Horretaz aparte, LAEMZek PWS (Public Warning System) izeneko proiektu europarrean ere parte hartzen du. Proiektu hori "alderantzizko 112" izenez ere ezagutzen da. Kasu horretan, larrialdi baten berri emateko ez da herritarra 112rekin harremanetan jartzen; aitzitik, Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (SMSren bidez) jartzen dira eragindako pertsonekin harremanetan, egoera larri baten berri emateko eta autobabes aholkuak emateko.

LAEMZek PPRD South III ("Prevention, Preparedness and Response to natural and man-made Disasters South, Phase III") proiektu europarrean ere lagundu du. Proiektu horren helburua da, proiektuaren herrialde onuradunetan larrialdi handi bat gertatuz gero, ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko kostuak murriztea eta erresilientzia handitzea.

Bilera ez presentzialen bidez lan egin da eta horietan Ekialde Hurbileko eta Afrikako Iparraldeko herrialdeetako ordezkariek, proiektuaren hartzaileak direnek, parte hartu dute. Horren helburua izan da herritarrei autobabesaren berri ematea; autobabesa larrialdi batean funtsezko tresna izan daitekeelako eragindako herritarrek erabaki egokiak hartu ahal izan ditzaten, agintariek zabalduko mezuak sinistuta, berri faltsuei ez entzunarena eginda eta eragindako pertsonen irudiak zabaltzen ez laguntzea garrantzizkoa dela barneratuta.

VOST Euskadik, Larrialdietako boluntario digitalen taldeak, proiektu honetan parte hartu zuen eta, horri esker, bertan azaldu ahal izan zen proiektuaren hartzaileak diren herrialdeetan hori bezalako talde espezializatuak sortu beharko liratekeela. LAEMZen eta VOST Euskadiren baterako lanari esker lortu da sare sozial gehienen bidez autobabes mezuek irismen handiagoa izatea eta beraz, herritar gehiagorengana heltzea.

Era berean, lan koordinatu horri esker, herrialde hartzaileek sareko gezurrak eraginkortasunez antzeman ahal izan dituzte, horrelako gezurrek nahasmena handitu eta herritarren artean ziurgabetasuna sortu besterik ez dute egiten eta. Berri faltsuak arin identifika-

De hecho, cuando los teléfonos inteligentes detectan que el usuario efectúa una llamada al 112, activan automáticamente la función GPS que identifica su posición exacta y envían un mensaje con las coordenadas de ubicación al servicio que atiende dicha llamada.

En otro orden de cosas, la DAEM también forma parte del proyecto europeo denominado PWS (Public Warning System), también conocido como "112 a la inversa". En este caso, el ciudadano no es quien se comunica con el 112 para informar de una emergencia, sino que serían los propios Centros de Coordinación de Emergencias los que contactarían (vía SMS) con las personas afectadas para advertirles de una situación de grave y proporcionarles consejos de autoprotección.

Asimismo, la DAEM ha colaborado en el proyecto europeo PPRD South III ("Prevention, Preparedness and Response to natural and man-made Disasters South, Phase III"), cuyo propósito es incrementar la resiliencia y reducir los costes medioambientales, económicos y sociales en caso de que ocurriera una gran emergencia en los países beneficiarios del proyecto.

El trabajo se ha desarrollado en varias reuniones no presenciales en las que han participado representantes de los países destinatarios del proyecto procedentes de Oriente Medio y del Norte de África. El objetivo ha sido la difusión de la autoprotección de la población como herramienta básica en una emergencia para que la ciudadanía afectada sea capaz de tomar las decisiones adecuadas confiando en los mensajes difundidos por las autoridades, desoyendo noticias falsas e interiorizando la importancia de no contribuir a la divulgación de imágenes de las personas afectadas.

Gracias a la participación de VOST Euskadi en este proyecto, grupo de voluntarios y voluntarias digitales en emergencias, se transmitió la necesidad de crear estos equipos especializados en los países destinatarios del proyecto. La colaboración conjunta de la DAEM y VOST Euskadi ha permitido un mayor alcance de los mensajes de autoprotección a través de la mayoría de las redes sociales, llegando así a una franja poblacional más alta.

De igual modo, este trabajo coordinado ha permitido a los países destinatarios una eficaz detección de bulos en la red que solo contribuyen a aumentar el caos y a sembrar la incertidumbre en la ciudadanía. La pronta identificación de noticias falsas permite a los respon-

tuz gero, larrialdiaren kudeaketaren arduradunek hori kontuan hartuta jokatu ahal dute eta iturri ofizial gisa kontrastatutako egiazko informazioa argitaratu ahal dute.

Azkenik, Euskalmet markaren bitartez, LAEMZek kolaboratzaile gisa parte hartzen du URBAN KLIMA 2050 proiektuan. Neurtzeko sistemetan, iragartzeko sistema eta tresnetan eta alerta-sistemetan hobekuntzak lortzeko helburua du proiektu horrek. Gainerako bazkide eta parte hartzaileekin lankidetza handia egoten da eta horri esker, behar duten informazioa meteorologikoa eta klimatikoa eman ahal zaie.

sables de la gestión de la emergencia actuar en consecuencia y publicar información veraz y contrastada como fuente oficial.

